



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko abenduaren 16a

141. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Foruzaingotari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Foruzaingoari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 3an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Foruzaingoari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foruzaingoari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** Foruzaingoa (3. or.).
 - II.1. Jatorria (3. or.).
 - II.2. Zeregina (4. or.).
 - II.3. Egitura organikoa eta plantilla (4. or.).
 - II.4. Aurrekontuaren likidazioa (4. or.).
 - II.5. Foruzaingoaren jarduera (5. or.).
 - II.6. Kontuen Ganberaren txosteneko (1999) gomendioak (5. or.).
 - II.7. Aplikatzekoa den araudia (6. or.).
- III.** Helburuak, norainokoa eta mugak (7. or.).
- IV.** Ondorioak eta gomendioak (8. or.).
 - IV.1. Foruzaingoko plantillari buruzko analisia (2010-2013) (8. or.).

IV.2. Foruzaingoko agente-kopuruaren eta beste autonomia erkidego batzuetako agente-kopuruaren alderaketa (11. or.).

IV.3. Foruzaingoaren eta Nafarroako gainerako polizia-kidegoen eskumenak (12. or.).

IV.4. "Herritarren segurtasuna" aurrekontu-programaren aurrekontu-betetzearen bilakaera 2004tik 2013ra. (12. or.).

IV.5. "Herritarren segurtasuna" aurrekontu-programaren aurrekontu-betetzea 2013an (13. or.).

IV.6. Kontuen Ganberak 1999an emandako gomendioen jarraipena (13. or.).

V. Egindako lanaren azterketa xehaketa (15. or.).

V.1. Foruzaingoko plantillari buruzko analisia (2010-2013) (15. or.).

V.2. Plantillako agenteen kopuruaren beste polizia autonomiko batzuetako agente-kopuruaren arteko alderaketa (22. or.).

V.3. Foruzaingoaren eta gainerako polizia-kidegoen eskumenak (23. or.).

V.4. Aurrekontu-betetzearen bilakaera (2004-2013) (25. or.).

V.5. 2013ko aurrekontu-betetzea (28. or.).

V.6. Foruzaingoaren jarduerari buruzko analisia (34. or.).

V.7. Kontuen Ganberak 1999an emandako gomendioen jarraipena (36. or.).

1. eranskina.- Foruzaingoaren antolamendu egitura (2013) (37. or.).

2. eranskina.- Nafarroan dauden polizia-kidegoen eginkizunak (39. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (43. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (46. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganberak, bere ekimenez, Foruzaingoari buruzko fiskalizazio txosten bat egin du, 2013ko ekitaldiari buruzkoa, eta lan hori 2014ko urteko fiskalizazio programan sartu du.

1999ko abuztuan, Kontuen Ganberak txosten bat egin zuen Foruzaingoaren aurrekontu-programari buruz (1998ko ekitaldia).

Lana auditoriako hiru teknikariek eta auditore batek osatutako lantalde batek egin du, 2014ko martxoetik ekainera, Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, Foruzaingoari buruzko alderdi orokor batzuk deskribatzen dira; hirugarrenean, txostenaren helburua, norainokoa eta mugak deskribatzen dira; laugarrenean, lortutako ondorioak eta gomendioak, eta bosgarrenean, analisi xehe bat egiten da egindako lanari buruz.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Foruzaingoko, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko, eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. FORUZAINGOA

II.1. JATORRIA

Foruzaingoaren jatorria 1928an dago, orduan Errepideetako Polizia Kidegoa sortu baitzen, nagusiki trafikoarekin zerikusia zuten eginkizunekin.

1964an, Estatuarekin zenbait gatazka izan ondoren trafikoaren arloko eskumenaren esleipenean eginkizun batzuk murriztu zituelako, kidegoa berrantolatu eta "Foruzaingoa" izena hartu zuen. Foruzaingoa eginkizun gehiago zituen, eta efektiboak zein baliabideak handitzea aurreikusi zen.

1964 eta 1982 bitartean Foruzaingoaren plantilla 17 kide izatetik 90 izatera pasa zen, eta funtzio berriak bereganatzen joan zen; hala nola, eraikinak zein instalazioak zaindu eta agintariak babestea.

Foruaren Hobekuntza 1982an onetsi zenean, Nafarroak Foruzaingoaren araubidea erregulatzeko eskumena jaso zuen, eta aukera eman zitzaion bere eginkizunak handitzeko Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko Lege Organikoak ezarritako esparruan. Hartara, 1987an Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko 1/1987 Foru Legea onetsi zen, non Foruzaingoko kideen eginkizunak, antolamendua eta estatua arautu baitziren.

Hurrengo urteetan, plantilla erregulariki handitzen joan zen, eta beste eginkizun batzuk hartu zituen; besteak beste, jokoa, ikuskizunak eta ingurumenaren zaintza.

Nafarroako Parlamentuak 1994an onetsi zuen "Nafarroako Foruzaingoaren Antolaketari eta Zereginiei buruzko Plana", eta horren helburuetako bat zen 2000. urtean 600 foruzain edukitzea.

2002an, Foruzaingoaren lurralde-zabalpena gertatu zen, eta Tuterako polizia-etxea zabaldu zen. Urte berean, 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuak Nafarroako Polizia Kidegoak arautu zituen (Foruzaingoa eta tokiko poliziak). Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko 8/2006 Foru Legeak hein batean gaurkotu zuen araupetze hori. Azken lege horrek Nafarroako Foru Komunitateak segurtasun publikoaren alorrean dauzkan eskumenak antolatu zituen eta zenbait alderditan sakondu zuen; esate baterako, administrazioen arteko lankidetzak eta koordinazioa, agintariak eta segurtasun publikoarekin lotutako zerbitzuak.

Foru lege hori onestearekin, 2009an Estatuko Barne Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko akordio bat sinatu zen, non finkatu baitzen Foruzaingoko agenteen kopurua 1.200koa izanen zela 2012an, eta Foru Komunitatean zeuden Guardia Zibilarren eta Polizia Nazionalaren efektiboak (2.294) pixkanaka gutxitzen joanen zirela. Halaber, Foruzaingoa Nafarroan zabaltzen jarraitu zen, eta Altsasuko, Elizondoko, Lizarrako, Iruñeko, Zangozako eta Tafallako polizia-etxeak sortu ziren.

Gero, Foruzaingoaren eta Nafarroako tokiko polizien araubidea gaurkotu eta arautze aldera, haiek koordinatzeko eta haien langileen estatutua arautzeko, Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea onetsi zen.

II.2. ZEREGINA

Foruzaingoaren zeregin eta eginkizunak Nafarroako Polizieiei buruzko 8/2007 Foru Legean ezarri ziren. Zehazki, zereginak honako alderdiak ditu ardatz:

- Ordenamendu juridikoaren arabera, pertsonen aitorturik dituzten askatasun eta eskubideak babestea eta begiratzea.
- Segurtasun eta lasaitasun publikoa zaintzea, legeak errespetatzen direla bermatzea eta gizar-tearen ordena gordetzea.
- Delinkuentziari aurre egitea eta haren kontra borrokatzea.
- Herritarrei laguntza eta zerbitzuak ematea.

II.3. EGITURA ORGANIKOA ETA PLANTILLA

Foruzaingoa irizpide funtzional eta operatibo hutsen arabera egituratzen da, Foruzaingoko buruaren pertsona bakarreko zuzendaritzaren pean, lau maila hierarkizatuta: alorra, atala, brigada eta taldea, txosten honetako 1. eranskinean zehaztutako organigramaren arabera.

Foruzaingoaren 2013ko plantilla organikoak 1.230 plaza dauzka; horietatik, 1.049 behin betiko nahiz behin-behineko moduan beteta daude, 80 erreserbatuta daude behin-behinekoz burutzetan dauden pertsonentzat eta 30 eszedentzian edo zerbitzu berezietako egoeran dauden pertsonen dagozkie. Gainera, 71 plaza hutsik daude. Horietatik, txosten hau idazteko unean, 26 beteta daude.

II.4. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

"Herritarren Segurtasuna" aurrekontu-programak Foruzaingoaren gastuak biltzen ditu. Bere jardueraren bidez sortutako diru-sarrera batzuk jasotzen ditu, baina beste batzuk –jokoen, ikuskizunen eta herritarren segurtasunaren esparruetan ezarritako isunek sortutakoak– "Barneko Zuzendaritza eta Zerbitzu Zentralak" aurrekontu-programan sartzen dira, eta, funtsean, honakoen ondoriozkoak dira: legez kanpoko substantziak eduki eta kontsumitzea, ordena publikoa nahastea eta arma nahiz objektu arriskutsuak edukitzea.

Gainera, garraioen arloko zehapenetatik heldu diren diru-sarrera batzuk badaude, honako aurrekontu programan erregistratzen direnak: "Mugikortasunaren eta garraioen antolamendua".

Honakoa da aurrekontu-programa hauek gastuetan eta diru-sarreretan azken bost urteetan izan duten bilakaera, kapituluaren arabera:

"Herritarren Segurtasuna" aurrekontu-programa

	2009	2010	2011	2012	2013	Aldea (%), 2013/2009	Aldea (%), 2013/2012
Gastuak	50.511.211	53.297.173	54.839.990	51.404.279	50.671.540	0,3	-1,4
Diru-sarrerak	102.382	98.419	100.394	101.078	94.271	-7,9	-6,7

"Barneko Zuzendaritza eta Zerbitzu Zentralak" aurrekontu-programa

	2009	2010	2011	2012	2013	Aldea (%), 2013/2009	Aldea (%), 2013/2012
Diru-sarrerak	609.179	722.395	646.891	492.666	878.638	44,2	78,3

"Mugikortasunaren eta garraioaren antolamendua" aurrekontu-programa*

	2009	2010	2011	2012	2013	Aldea (%), 2013/2009	Aldea (%), 2013/2012
Diru-sarrerak	5.611.649	4.378.203	4.807.129	4.149.002	3.468.983	-38,2	-16,4

* 2009-2012 aldian, honakoa zen aurrekontu-programa horren izena: "Antolamendua eta kudeaketa".

Ikusten den bezala, gastuak, 2013an, 50,67 milioi eurora iritsi ziren, aurreko urtekoen aldean beharrezko arin bat izan ondoren; programaren beraren diru-sarrerak 94.271 eurokoak izan ziren, eta 2012koen aldean ehuneko 6,7 jaitsi ziren. Bestalde, "Barneko zuzendaritza eta zerbitzu zentralak" programan izandako diru-sarrerak 878.638 eurokoak izan ziren 2013an, eta ehuneko 78ko igoera nabarmena izan zuten 2012koen aldean. Garraioko zehapenetatik heldutako diru-sarrerak 3,47 milioi eurokoak izan ziren, eta ehuneko 16,4 jaitsi ziren 2012koen aldean.

Aurrekoari gehitu behar zaio Foruzaingoak ezarritako trafiko isunetatik heldu diren diru-sarrerak Estatuak biltzen dituela, beste polizia autonomikoetan gertatzen denaz bestera, zeren eta Nafarroak ez baitu arlo horretarako zehapenatarako eskumenik.

II.5. FORUZAINGOAREN JARDUERA

Urtero, Foruzaingoak jardueren oroitidazki bat argitaratzen du, non, besteak beste, honakoak biltzen baitira: egitura organikoa, aurrekontu-zuzkidura, efektiboen banaketa, absentismoari eta aparteko ordui buruzko azterketa eta aurrera eramandako jardueraren xehakatzeko zorrotz bat.

Foruzaingoari esleitutako eginkizun eta eskumen ugari dagoenez, gisa askotako jarduerak eramaten du aurrera. Jarduera hori honako alorretan kokatzen da: Orotariko Ikuskapena; Barneko Segurtasuna eta Polizia Administratiboa; Trafikoa eta Bide Segurtasuna; Herritarren Segurtasuna, eta Ikerketa.

"Herritarren segurtasuna" aurrekontu-programak funtsean jardueraren garapenarekin lotutako adierazleak biltzen ditu.

Gainera, 133/2008 Foru Aginduaren bidez onetsitako zerbitzu-gutun bat badago, non zehatzago aipatzen baitira funtsean aurrera eramandako jarduerarekin lotutako zerbitzuak, konpromisoak eta betetzeari buruzko adierazleak.

2013rako honakoak dira jardueraren adierazle nagusietako batzuk, Foruzaingoaren oroitidazkiaren arabera:

- Aurkeztutako salaketa administratiboak: 60.031.
- Bideratutako zigor arloko atestatuak: 3.990.
- Istripuen ondoriozko atestatuak: 140.
- Istripuen ondoriozko prebentzio diligentziak: 2.886.
- Kontrolatutako ibilgailuak: 1.280.769.
- Koordinazio Aginte Zentroaren komunikazioak 270.203.
- Schengen Informazio Sistemaren egindako kontsultak (nazio mailako egun-jartzei buruzko datu basea): 1.194.078.
- Gutun eta paketeen kontrola: 20.213.
- Aisiako jardueren eta ikuskizun publikoen kontrolak: 13.982.
- Ibiltako kilometroak: 5.823.184.

II.6. KONTUEN GANBERAREN TXOSTENENKO (1999) GOMENDIOAK

Honakoak izan ziren Ganbera honek Foruzaingoari buruzko 1999an egindako txostenean jasotako gomendio nagusiak:

- *"...Prestakuntza fisikoko orduen, osagarrien eta ordainsari aldagarrien kontrola areagotzea.*
- *Langileen alorrari buruzko erabaki eta legeria guztia lege-maila askirekin onetsi eta biltzea.*
- *Ibilgailuak konpondu eta mantentzeko gastuen kontrola eta ekipamendu eta jantzien biltegiko gastuena areagotzea.*
- *Ibilgailuak erosteko programazioa hobetzea.*
- *Material oso berezien erosketak batzuk, poliziak egin ditzakeenak, dezentralizatzeko egokitasuna aztertzea.*
- *Obren proiektuak behar bezala gainbegiratzea eta horien administrazio-espeditu zentralizatu ezartzea.*
- *Beharrezkotzat jotzen dugu Estatuarekin hitzarmen bat negoziatzea, Foruzaingoaren ardurak eta eskumenak argi eta garbi mugatuko dituenak. Beharrezkoa da bereziki trafikoari eta polizia judizialari dagokienez, zeren, gaur egun partituak izaki arazoak eta gatazkak sor baitaitezke.*
- *Antolaketaren behar bezalako euskarri normatiboak, ardurak zein eskumenak argi eta garbi mugatzeak eta unitate bakoitzaren organigrama garatzeak ahalbidetuko dute zerbitzuak taxuz programatzea, eta horri esker ekidin eginen da aparteko orduak ugaritzea, bereziki ugariak baitira eskumenak partituak dituzten unitateetan.*

- *Beharrezkoa da prestakuntza ikastaroak erregelamendu bidez garatzea. Prestakuntza ikastaroak egokitu egin behar dira zerbitzuen beharrezanetara eta balio egin behar dute poliziaren barruan lanbide karrera egiteko, oraindik orain asko egin baitaiteke alor horretan.*
- *Foruzaingoa garatzeko beharrezkoa den adostasun politiko zabala aipatu dugu antolaketari buruzko atalean, eta horrexek ahalbidetuko du behar adina baliabide esleitzea poliziari, behar dituen instalazio zein baliabide teknikoak izan ditzan bere lana eraginkortasunez egiteko.*
- *Polizien prestakuntza fisikoa, kidego horretan garrantzi handia duena, banan-banan eta kontrol egokirik gabe egiten da gaur egun gimnasio pribatu batean.*
- *Gure ustez, arlo hori arautu egin behar da, eta langileen prestakuntza fisikoa unitate bakoitzaren arduren arabera egin poliziaren instalazio berekietan, arloan adituak direnek gainbegiratuta.*
- *Ahalegin bat egin beharko da, gure ustez, poliziako unitateen eraginkortasun eta ekonomia neurtzeko benetan balio duen adierazle multzo txikiago bat garatzearen. Gure gomendioak ondokoak dira:*
 - a) *Plan zuzentzailearen exekuzioa gaurkotu eta fasetan birprogramatzea, horri esker, ekitaldi bakoitzaren bukaeran burutzapen maila balioetsi ahalko baita.*
 - b) *Aldizka inkestak egitea, polizia unitateek jendea zenbateraino asebetetzen duten jakitearren, eta agerian gelditzen diren akats zein erreklamazioak aztertzea, akats horiek konponduz doazela aztertzeke balio duten adierazle neurgarriak garatuz.*
 - c) *Unitateen erantzuteko denbora, trafikokoena batik bat, aztertu eta ebaluatzea, eta horren bilaera ebaluatzeke adierazleak garatzea.*
 - d) *Unitateen kostuari buruzko kontrol erraz bat garatzea, eta kostuak gutxitzeko planak ezartzea, gastuak, aparteko orduak... gutxitzeko planifikazio egoki baten bidez.*
 - e) *Ekitaldi bakoitzaren bukaeran oroit-idazkia egitea, proposaturiko adierazleak betetze maila aztertu eta ebaluatuko duena..."*

Foruzaingoarean antolaketari buruz, honakoa aipatu genuen:

"...Gure ustez, Foruzaingoarean antolaketa egoki batek haxe eskatzen du:

- *Nafarroan garatu nahi den poliziari buruzko adostasun politiko zabala.*
- *Polizia kidegoa, haren maila eta funtzioak argi eta garbi arautuko duen legeria garatzea.*
- *Destinoen erregelamendua, unitate bakoitzari behar adina polizia esleitu diona, eta horiek eskuratzeko irizpideak.*

Arestiko puntuetatik sortzen den organigrama garatzea, batez ere burutzei dagokienez. Plan Zuzentzaileak 600 poliziako kidegoa aurreikusten du, eta horietatik, agintari zein ofizial plaza asko hutsik dago gaur egun. Dena den, trafikoari, polizia judizialari, ingurugiroari, espetxe erakundeei, justiziari eta abarrei buruzko eskumenak oso-osorik bereganatuz gero, birplanteatu egin beharko da Plan Zuzentzailea..."

II.7. APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

Ondoren, Foruzaingoiari dagozkion arau garrantzitsuenak aipatuko ditugu:

Martxoaren 25eko 57/2002 Foru Dekretua, Nafarroako Foruzaingoko Lanpostuak Betetzeko Erregelamendua onesten duena.

Abenduaren 29ko 718/2003 Foru Dekretua, Nafarroako Polizia Kidegoetako Langileen Erregelamendua onesten duena.

Uztailaren 26ko 265/2004 Foru Dekretua, Foruzaingoarean Antolamendu eta Funtzionamenduen Erregelamendua onesten dituen, eta haren aldaketak.

Urtarrilaren 10eko 1/2005 Foru Dekretua, Nafarroako Foruzaingoko kideen lanaldien, ordutegiaren eta ordainsarien Erregelamendua onesten duena.

Ekainaren 20eko 8/2006 Foru Legea, Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzkoa.

Martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea, Nafarroako Poliziei buruzkoa.

Urriaren 17ko 112/2012 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa hein batean aldatzen duena.

III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Hona txosten honen helburuak:

- Foruzaingoko plantillari buruzko analisisa egitea (2010-2013)
- Foruzaingoko plantillako agenteen kopurua alderatzea beste autonomia erkidego batzuetako segurtasun indarretan dauden agente-kopuruekin.
- Foruzaingoaren eskumenak eta Nafarroan dauden gainerako segurtasun-indarrenak aztertzea.
- "Herritarren segurtasuna" aurrekontu-programaren aurrekontu-betetzearen bilakaera aztertzea 2004tik 2013ra doan aldiari dagokionez.
- "Herritarren segurtasuna" aurrekontu-programaren 2013ko ekitaldiko aurrekontu-betetzea aztertzea.
- Egiaztatzea eta "Herritarren segurtasuna" aurrekontu-programaren kudeaketak 2013an eraginkortasun, ekonomia eta efizientzia printzipioak bete dituen.
- Kontuen Ganberaren 1999an Foruzaingoari buruz egin zuen txosteneko aholkuen jarraipena egitea.

Lanean zehar, honakoak aztertu dira: Foruzaingoaren plantillak; polizia autonomikoa duten beste erkidego batzuetako agente kopuruari buruzko informazioa; Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioko Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Buletin Estatistikoa; Foruzaingoaren aurrekontu-programaren aurrekontu-likidazioak; likidazio horrek 2013rako ekarri dituen eragiketak; ezarritako barne kontroleko prozedurak, eta jardueren kudeaketa.

Foruzaingoaren bulegoetan ez dago agiritegi zentralizaturik, kontratazio-espedituei buruzko dokumentazioa biltzen duenik. Nafarroako Gobernuak zenbait bulegotara joan gara –Ondare Zerbitzua, Lehendakaritza eta Justizia Zuzendaritza Nagusia eta Gobernu Irekiaren eta Teknologia berrien Zuzendaritza Nagusia–, informazio hori bai baitzuten. Horrek nolabaiteko atzerapena eragin du dokumentazio hori lortzean.

Foruzaingoko aurrekontu-programako adierazle ia guztiak eta haren zerbitzu-gutunekoak jarduerari buruzkoak dira. Ez dago adierazlerik Foruzaingoa aurrera eramandako jardueren ekonomia, efizientzia eta eraginkortasuna neurtzea bideratzen duenik, eta horrek muga bat ekarri du gure lana egiteko eta eragozten digu hari buruzko iritzia ematea.

Alderdi horri buruz, esan beharra dago Foruzaingoa, une hauetan, bere informazio-sistemak gaurkotzeko eta garatzeko prozesuan dagoela, ematen dituen zerbitzuen kalitatea hobetze aldera. Informazio-sistema horiek berezitasun bat badute: ardatz-elementua dira polizia-baliabideen kudeaketari buruzko etorkizuneko politika finkatzeko erabakiak hartzeko orduan.

Informazio-sistema hauek aukera emanen dute jarduera-adierazleak lortzeko, agente bakoitzak egindako lanari dagokionez, bai eta egindako programazioaren eraginkortasuna eta eragina neurtzeko ere. Informazio horretatik abiatuta, jarraibide batzuk ezarri ahalko dira ematen diren zerbitzuetan, eta, kasua bada, hasierako plangintza birformulatu ahalko da; bide batez, erabakiak hartzeko behar diren tresnak emanen dira.

Aurrekoa gorabehera, Foruzaingoaren jardueraren deskribapen-azterketa bat egin da, 2009-2013 aldiari dagokionez.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo laguntza hauek emateko espeditueak berrikustekoa.

Txostenarekin batera, Foruzaingoaren barne kontroleko sistema, administrazio-sistema eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzen jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Atal honetan, egindako lanetik ateratako ondorio eta gomendio nagusiak azalduko ditugu:

IV.1. FORUZAINGOKO PLANTILLARI BURUZKO ANALISIA (2010-2013)**IV.1.1. Lanpostu kopurua eta egoera administratiboa**

Lanpostu kopurua eta plantillaren egoera administratiboa egonkor mantendu dira aztertutako al-dian, eta honako datuak dauzkate 2013an:

Lanpostuaren egoera administratiboa	2013/12/31		Aldea (%), 2013/2010	Aldea (%), 2013/2012
	Lanpostu kopurua	%, guztiz- koaren gainean		
Behin betiko edo behin-behineko moduan bete-takoak	1.049	85,3	-0,8	-0,6
Eszedentzia edo zerbitzu bereziak	30	2,4	-6,3	25
Burutzetarako behin-behineko izendapenengatik erreserbatutakoak	80	6,5	1,3	-10,1
Hutsak	71	5,8	-4,1	14,5
Guztira	1.230	100	-1,0	0

Gutxi gorabehera, plazen ehuneko 85,3 behin betiko nahiz behin-behineko moduan beteta daude; gainera, ehuneko 6,5 burutza jakin batzuen behin-behineko izendapenen ondorioz erreserbatutako plazak dira; plazen ehuneko 5,8, azkenik hutsik dago. Gainerako ehuneko 2,4a eszedentzian edo zerbitzu berezietan dauden pertsonen plazak dira.

IV.1.2. Lanpostuak eta egoera administratiboa

Plantillaren osaketa, lanpostuen arabera, eta plazen egoera aurreko ekitaldietakoen oso antzekoak dira. 2013. urteari dagokionez, honakoak dira datuak:

Lanpostua	Guztira	%, guztiz- koaren gai- nean	Behin be- hineko edo behin be- tiko mo- duan bete- takoak	Eszedentzia/zerbitzu bereziak	Burutzengatiko erreserbak	Hutsak
Foruzaingoa (agenteak)	866	70,4	815	21	0	30
Foruzaingoko kaboa	145	11,8	125	9	1	10
Foruzaingoko inspektoreordea	87	7,1	30	0	54	3
Foruzaingoko komisarioa	10	0,8	0	0	0	10
Komisario nagusia	7	0,6	0	1	5	1
Foruzaingoko inspektorea	27	2,2	0	0	19	8
Foruzaingoko alorreko burua	5	0,4	4	0	0	1
Foruzaingoko brigadaburua	16	1,3	13	0	0	3
Foruzaingoko dibisioko burua	20	1,6	19	0	0	1
Foruzaingoko taldeburua	46	3,7	42	0	0	4
Foruzaingoko burua	1	0,1	1	0	0	0
Guztira	1.230	100	1.049	31	79	71

Lanpostuen ehuneko 70 Foruzaingoko agenteenak dira; ehuneko 12 kaboak dira; ehuneko zazpi inspektoreordeak dira eta ehuneko lau taldeburuak dira. Ehunekoaren gainerakoa inspektoreek, komisarioek edo brigadaburuek osatzen dute, besteak beste.

Plantillak, oro har, lanpostuei buruz 8/2007 Foru Legeak finkatutako informazioa jasotzen du, baina alderdi batzuk falta dira; besteak beste, lanpostua dela-eta erreserbatutako enplegua edo kategoria; bigarren jarduerako lanpostuak; sartzeko modalitateak, eta irauteko baldintzak.

IV.1.3. Destinoak eta burutzak betetzeko sistemak

Aplikatzekoa den arauak ezartzen du komisario nagusi, komisario, inspektore, inspektoreorde, kabo eta polizia enpleguetako destinoak beteko direla lehiaketa-sistemaren nahiz berariazko lehiaketaren sistemaren bidez.

Halaber, araudiak ezartzen du alorreko, dibisioko eta polizia-etxeko buruak libreki izendatu eta kargutik kenduko direla. Polizia laguntzako bulegoetako, brigadetako eta taldeetako burutzak berariazko lehiaketaren bitartez beteko dira, salbu eta plantilla organikoak, aparteko izaeraz eta burutzaren berariazko ezaugarriari erreparatuta, aurreikusten duenean haiek izendapen askeko sistemaren bitartez betetzea.

Gainera, zehazten da alorretako agintea komisario nagusi batek beteko duela, dibisioetako komisario batek, brigadetako inspektore batek eta taldeetako inspektoreorde batek. Eskatutako enplegurako langilerik eskuragarri ez badago, burutzak behin-behinekoz bete ahalko dira inguruabar horrek irauten duen aldirian, beheargoko hurrengo enplegu-mailako langileekin, aurrez Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak edo Barne zuzendari nagusiak izendatuta.

Destinoak eta burutzak betetzeko sistemari buruz egindako azterketatik, honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

- Izendapen askeko sistema modu orokorrean erabiltzen da burutzetarako izendapenak egiteko, araudian esandakoa gorabehera.
- Lanpostu hutsetan ez da adierazten hornikuntza sistema zein izanen den.
- Enplegu desberdinetarako sartzeko arazo batzuk badaude, eta haien eginkizunak arautu gabe daude. Horren ondorioz, haietako asko behin-behinekoz betetzen dira, eta kasu batzuetan, araudian jasotako igoera-lehiaketaren prozedurari jarraitu gabe.
- Ez dago bigarren jarduerari buruzko araupetzerik, ulertuta azken hori dela Foruzaingoko funtzionarioek adin batetik gora egiten luketen jarduketa. Gaur egun, gai hori arautzeko prozesuan dago.

IV.1.4. Ordainsarien baldintzak

Plantillaren ordainsari-kontzeptuak aztertuta, honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

- Lanpostu-osagarriari dagokionez, alde nabarmenak daude Foruzaingoko agente, kabo eta inspektoreorde lanbide-kategorien artean, zerbitzuak ematen diren antolamendu-unitatearen arabera. Horrek ekartzen du osagarri horren portzentajeetan abaniko zabala egotea. Hurrengo taulan ematen ditugu horri buruzko xehetasunak:

Lanpostua	Lanpostu-osagarriaren tartea, ehunekotan adierazia
Foruzaingoko agentea	8,83 - 58,37
Foruzaingoko kabo	21,67 - 65,19
Foruzaingoko inspektoreordea	12,5 - 53,32

- Agintarien babesari atxikitako Foruzaingoko kideek (2013an, 63 ziren) ehuneko hamarreko osagarria jasotzen dute, urtean behin egin behar izaten dituzten proba fisiko batzuk gainditzeagatik. Gainerako langileen kasuan, proba horiek gainditzeko badituzte, urtean 126 ordu opor edo adierazitako ordainsaria ematen zaie. 2013an, proba horietara, agenteen ehuneko 97 aurkeztu ziren, eta guztiek gainditu zituzten. Horietatik, ehuneko 15ek adierazitako osagarria kobratu zuten, eta gainerakoek, ehuneko 85ek, ordu konpentsazioaren alde egin zuen: guztira, 112.140 ordu izan ziren, hain zuzen ere 80 agenteren urteko jardunaren adina ordu.

IV.1.5. Abenduaren 31n jardunean ari ziren agente efektiboen kopurua

Abenduaren 31n egiazki zeuden agenteak eta haien jarduera-alorren arabera banaketa egonkor mantendu dira aztertutako aldian. Ondoren adierazten ditugu balio horiek, 2013. urteari dagokionez:

Arloa	2013		Aldea (%)	
	Agente kopurua	Gutzizkoaren gaineko %	2013/2010	2013/2012
Orotariko Ikuskapena	422	39,0	-8,3	-6,0
Trafikoa eta bide-segurtasuna	164	15,1	8,6	2,5
Herritarraren segurtasuna	226	20,9	-9,6	-5,0
Ikerkuntza Kriminala	102	9,4	22,9	22,9
Barneko segurtasuna eta polizia administratiboa	169	15,6	11,9	5,6
Guztira	1.083	100	-1,1	-0,6

Banaketa hori gorabehera, polizia-etxeak funtzionalki Orotariko Ikuskapenaren pean daude eta, egiten dituzten jardueri erreparatuta, Foruzaingoko efektibo guztien ehuneko 50 inguru herritarren segurtasuneko lanei esleituta daude.

Arlo, dibisio, brigada eta talde guztiak Foruzaingoaren eginkizunekin daude lotuta, baina Kudeaketa Administratiboko Taldeak eta Giza Baliabideen Taldeak, zeinak 2013an 47 pertsona baitauzka, eginkizun soilik administratiboetan jarduten dute.

Honakoa da antolamendu-unitate horien langile-atxikipena, aztertutako aldian:

Antolaketa-egitura	Plantillako agente-kopurua			
	2010/12/31	2011/12/31	2012/12/31	2013/12/31
Kudeaketa administratiboko taldea	35	40	39	39
Giza baliabideen taldea	9	9	8	8
Guztira	45	49	47	47

Antolamendu unitate horietan lan egiten duten 45 pertsona ingururen ordainsariak eta izaera administratiboa duten langile horiek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioakoak izanen balira gertatuko lirakeen ordainsariak alderatu dira. Hona lortutako emaitza, eurotan:

Foruzaingoko langileak	Administrariak	Pertsona-kopurua	Foruzainen ordainsariak	Administrarien ordainsariak	Aldea
Foruzaingoko kaboak	Administraria	4	114.970	89.063	25.907
Foruzaingoko taldeburua	Diplomatu burua	2	67.405	63.692	3.714
Foruzaingoa	Administraria	39	1.034.453	868.364	166.089
Guztira		45	1.216.828	1.021.119	195.710

195.710 euroko aldea dago ordainsarien artean, eginkizunak nork betetzen dituen. Hiru alderdi gehigarri daude, kontuan hartu beharrekoak:

- Foruzaingoaren egungo lanaldia goiz eta arratsaldekoa da, eta 1.554 ordukoa. Kopuru hori administrazioko langileei ere aplikatzen zaie. Hala eta guztiz, aurrez aipatutako proba fisikoak gainditzeagatik 126 ordu kentzen zaizkienez, Foruzaingoko langileen lanaldi efektiboa 1.436 ordukoa izanen litzateke.

- Administrazioko langileen lanpostuetara sartzeko gisa horretako eginkizunetan gaitzuntasun eta kompetentzia izatea eskatzen da; Foruzaingoaren kasuan, sartzeko baldintza administratiboez bestelakoak dira; hori dela eta, ez dago berriz berretasun horrelako lanetarako prestakuntza dutenik.

- Langileen parte bat administrari laguntzaileak izatekotan (ohiko egoera da hori Nafarroako Gobernuko beste egoitza batzuetan) kalkulaturako aldea handiagoa izanen litzateke.

IV.1.6. Lanaldia

Honakoak dira Foruzaingoko agente efektiboen lanaldi ohikoenak:

Lanaldia	Ordu kopurua/urteko egunak	Agente kopurua	Agente efektiboen guztizkoan zenbat egiten duten
Goiza-arratsaldea-gaua	1.457 ordu	848	78
Goiza-arratsaldea (jai eguna)	1.554 ordu	142	13
Agintariak Babestea	165 egun	78	7
Guztira		1.068	98

Proba fisikoak gainditzeagatik lortutako orduak kenduz gero, bai eta aparteko orduak egitearen, jai egunetan lan egitearen edo gaueko ordutegian lan egitearen ondoriozkoak ere, agenteen batez besteko lanaldi efektiboa urteko 1.348 ordukoa da.

IV.1.7. Langileriaren alorra dela eta aurkeztutako errekurtsioak

2011-2013 aldian, 321 errekurtsio edo erreklamazio aurkeztu ziren, funtsean aparteko orduak eta enplegu-eskaintza publikoko deialdiak direla eta.

IV.2. FORUZAINGOKO AGENTE-KOPURUAREN ETA BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUE-TAKO AGENTE-KOPURUAREN ALDERAKETA

Honakoak dira beren autonomia-estatutuan polizia-kidego bat izatea aurreikusita duten autonomia erkidegoak: Euskadi (Ertzaintza), Katalunia (Mossos d'Esquadra) eta Kanariar Uharteak. 2013ko ekitaldiko plantillak direla-eta lortutako informazioaren alderaketak honako emaitzak ematen ditu:

	Nafarroa	Euskadi	Katalunia	Kanariar Uharteak
Agente autonomikoen kopurua	1.230	8.000	17.080	300
Guardia Zibileko eta Polizia Nazionaleko efektiboen kopurua	2.277	4.154	6.779	7.205
Tokiko polizien agente-kopurua	795	3.138*	10.586	3.215
Efektiboak, guztira	4.302	15.154	34.445	10.720
Azalera (Km ²)	10.391	7.235	32.091	7.493
Biztanleak	644.477	2.191.682	7.553.650	2.118.679
Km ² /agente autonomikoa	8,45	0,9	1,88	25
Biztanle kopurua/agente autonomikoak	524	274	442	7.062
Km ² /efektiboak, guztira	2,42	0,48	0,93	0,70
Biztanle kopurua/efektiboen guztizkoa	149,81	144,63	219,30	197,64

(*) Lortu ahal izan dugun azken datu ofiziala 2005ekoa da.

Kanariar Uharteena da biztanle bakoitzeko eta kilometro koadro bakoitzeko agente kopuru txikiena duen erkidegoa; ondoren, Nafarroa dator. Alde handiak daude lortutako emaitzetan.

Erkidego bakoitzeko gainerako segurtasun-kidego eta -indarrak gehitzen baditugu, ondorioak asko aldatzen dira, eta Katalunia da biztanle bakoitzeko efektibo kopuru txikiena duena; ondoren Kanariar Uharteak daude. Gainera, efektibo bakoitza/km² ratio handiena Nafarroakoa da, eta ondoren Katalunia dator.

IV.3. FORUZAINGOAREN ETA NAFARROAKO GAINERAKO POLIZIA-KIDEGOEN ESKUMENAK

Polizia kidego guztiek oinarrizko eginkizun bera betetzen dute, zeina baita segurtasun publikoari eustea. Eginkizun orokor hori eginkizunen abaniko zabal batean zatitu daiteke; horietako batzuk kidego guztiei dagozkie eta beste batzuk, berriz, horietako batzuei berariaz.

Nafarroan Foruzaingoko, Tokiko Poliziako, Guardia Zibileko eta Polizia Nazionalako agenteak batera daude. Joko eta ikuskizunen alorrean izan ezik, Foruzaingoko ez du inongo eginkizun eskusiboa, eta kasu guztietan eginkizunak gainerako polizia-kidegoekin partekatuta daude. Hiri eremuetan, Foruzaingoko Tokiko Poliziarekin eta Polizia Nazionalarekin partekatzen ditu eginkizunak, eta landa-eremuetan, berriz, Guardia Zibilarekin. Hori dela eta, funtsezkoa da kidego horien arteko koordinazioa.

Kidegoen arteko koordinaziorako zenbait organo instituzional badago; oro har, 2011tik bildu gabe daude. Hori gorabehera, Koordinazio Batzordeak, Foruzaingoarene jarduketa-alor desberdinetan organo horietako batek sortuak, erregulatasunez biltzen dira eta elkarrekin ados jarrita lankidetzan jarduten dute. Hala eta guztiz ere, herritarrei arreta emateko zenbait telefono egoteak eta polizia-kidegoetako geokopapeneko sistemak baliabideen erabilera efizientziarik eta eraginkortasunik gabea eragin lezakete.

IV.4. "HERRITARREN SEGURTASUNA" AURREKONTU-PROGRAMAREN AURREKONTU-BETETZEAREN BILAKAERA 2004TIK 2013ra.

"Herritarren segurtasuna" programaren aurrekontu-betetzearen bilakaera aztertu dugu. Foruzaingoaren gastuak eta diru-sarrerak biltzen ditu. Emaitza nagusiak ondoren adierazten direnak dira:

Gastuak	2004	2013		Aldea (%) 2013-2004
		Gastua	%, guztizkoaren gainean	
1. kapitulua. Langile-gastuak	22.943.035	45.872.458	91	100
2. kapitulua. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	3.193.605	4.058.081	8	27
6. kapitulua. Inbertsio-gastuak	1.216.679	741.001	1	-39
Orokorra, guztira	27.353.319	50.671.540	100	85
Diru-sarrerak				
3. kapitulua. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	74.801	94.271	100	26
Orokorra, guztira	74.801	94.271	100	26

Aldi osoa hartuta, gastuek ehuneko 85 egin dute gora, plantillako agenteen kopuruak eta, horrenbestez, langile gastuek gora egin dutelako.

Gastuen aurrekontuaren egitura antzekoa da aztertutako urte guztietan eta guztizkoaren ehuneko 85 inguru langile-gastuei dagokie; ehuneko 12, berriz, ondasun arruntei eta zerbitzuei; azkenik, ehuneko lau inbertsioei dagokie.

Diru-sarrerak bat datoz txostenak egiteagatik tasekin, lagun egiteko tasekin edo arrazoiren baten-gatik polizia-egoitzetan bahiturak hartutako ibilgailuen egonaldiengatik tasekin.

Joko eta ikuskizunengatik edo herritarren segurtasunarengatik ezarritako isunetatik heldutako diru-sarrerak "Barneko zuzendaritza eta zerbitzu zentralak" aurrekontu-programan kontabilizatzen dira. 2013an, 878.638 euro egiten dute, 2004koen aldean ehuneko 473 gora egin ondoren.

Garraioaren alorreko zehapenengatik aitortutako diru-sarrerak, "Mugikortasunaren eta garraioen antolamendua" aurrekontu-programan erregistratzen direnak, 3,47 milioi eurokoak izan ziren 2013an. Horrek erakusten du 2014tik ehuneko 15eko jaitsiera izan dela.

Bestalde, urtero, Hitzarmen Ekonomikoan, Nafarroako Estatuari egin beharreko ekarpenaren mino-razio bat jasotzen da, Foruzaingoko ematen dituen zerbitzuak direla eta. Minorazio hori Foruzaingoko agente efektiboen finantzaketa-modulu baten arabera kalkulatzen da.

Urteko modulua lortzen da hitzarmena aplikatzeko bosturteko bakoitzaren hasieran kalkulatzen denarekin, eta Estatuako segurtasun-kidego eta -indarren gastuak jasotzen ditu, horri buruz dauden akordioetako aktetatik ondorioztatzen denaren arabera; horri, gainera, gaurkotze- eta egozpen-adierazle bat aplikatzen zaio.

Txosten hau idazteko datan, Nafarroako Estatuako zama orokorreari egin beharreko ekarpenaren minorazioaren 2013ko kalkulua egiteko dago oraindik. 2012an, finantzaketa-modulua 64.045 eurokoa izan zen agente bakoitzeko, eta Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenaren minorazio bat suposatzen zuen.

Ez dago jasota modulu honen kalkuluaren xehetasuna; hori dela eta, ezin izan dugu haren egokitasuna egiaztatzen.

IV.5. "HERRITARREN SEGURTASUNA" AURREKONTU-PROGRAMAREN AURREKONTU-BETETZEA 2013an

"Herritarren segurtasuna" aurrekontu-programako gastuen eta diru-sarreraren likidazioak, 2013ko ekitaldikoak, arrazoiz islatzen du Foruzaingoak egindako jarduerari eta, oro har, aplikatzeko den araudia betetzeko egin da.

Egindako azterketatik, gorabehera hauek dira azpimarragarriak:

- Foruzaingoak egindako aparteko orduak, 2013an, 28.542 izan ziren (agente bakoitzeko 26 ordu), eta ehuneko 60ko jaitsiera gertatu da 2012arekin alderatuta, hurrengo taulan erakusten den bezala:

Urtea	Aparteko orduak, guztira		Aparteko orduak, agente bakoitzeko	
	Ordu kopurua	Aldea (%), aurreko urtearen gainean	Ordu kopurua agente bakoitzeko	Aldea (%), aurreko urtearen gainean
2007	107.552	-	120	-
2008	100.897	-6	111	-8
2009	81.199	-20	81	-27
2010	75.561	-7	69	-15
2011	74.414	-2	68	-1
2012	70.484	-5	65	-4
2013	28.452	-60	26	-60

- Maiz gertatzen da hornikuntza-, zerbitzu-, inbertsio- edo enkargu-kontratuak esleitzeko espedienteen izapidetzea luzatu egiten dela, eta hilabetetan gastu batzuk aitortzen direla horretarako legezko estaldurarik eduki gabe, emandako zerbitzua dela-eta "*aberaste bidegabea*" edo "*funtsezko izaera eta ezinbestekotasuna*" bezalakoak aipatuz.

- 2013an, Ibilgailuen Parkeak bere gain hartu zuen Nafarroako Gobernuaren ibilgailuen konponketa eta mantentzea; ibilgailu horien artean, Foruzaingoarenak daude. Gure txostena idazteko datan, ez dira handitu ez baliabide pertsonalak, ez materialak; hori dela eta, 2013an 168.490 euroko aurrezkia lortu da, horixe baita zerbitzu horren lehengo kanpoko kudeaketak egiten zuen kopurua.

Zenbateko hori jaitsi egin liteke datozen urteetan, baldin eta giza baliabide edo baliabide material gehiago behar badira, honakoak direla eta: hartutako lan-zama handia, alderdi horren gaineko kontrola areagotzeko dagoen asmoa eta haren kudeaketarako informazio sistema hobetzeko beharra.

- Foruzaingoaren ibilgailuen ehuneko 40k 5 eta 10 urte bitarteko antzinatasuna du, eta ehuneko 36k 11 eta 18 urte bitartekoa.

- 2013an, zerbitzu hori egin zaion ibilgailu bakoitzeko konponketa- eta mantentze-lanen batez besteko kostua 1.953 eurokoa izan da.

IV.6. KONTUEN GANBERAK 1999an EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Orokorrean, Kontuen Ganberak 1999an Foruzaingoari buruz egindako txostenean jasotako gomendio guztiak bete egin dira edo ezartzeko fase aurreratu batean daude.

Ezartzeko gelditzen den gomendia eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia neurtzeko adierazle garapenera dagokiona da, bai eta antolamendu-unitateen kostuen gaineko kontrola egoteari buruzkoa ere.

Horri dagokionez, Foruzaingoa bere polizia-informazioko sistema modu integralean ezartzeko fasean dago. Horrek aukera emanen ditu etorkizunean gomendio hori betetzeko.

Atera ditugun ondorioak ikusirik, hauexek dira gure aholkuak:

LANGILEEN ARLOARI DAGOKIONEZ:

- *Plantillan dauden plazen egitura eta motak aztertzea, plantilla hori araudi indardunaren arabera betetzeko.*
- *Burutzak betetzeko garaian, izendapen askeko sistema erabiltzea soilik araudian aurreikusitako kasuetan.*
- *Aztertzea ea egokia den eginbehar soilik administratiboak dituzten lanpostuak Foruzaingoko langileek betetzea, eta hala bada, osagarriak eta lanaldiak lanpostuaren ezaugarriei egokitzea.*
- *Finkatzea zein den lanpostuetara sartzeko eta haietara igoera bidez iristeko deialdietan jarraitu beharreko prozedurarik egokiena, ahal den neurrian saihesteko plantilletan epaien bidez aldatetako ekar ditzaketan errekurtsoak aurkez daitezela.*
- *Bigarren jarduerarekin lotutako alderdi guztiak arautzea, baliabideen aprobetxamendu hobea lortze aldera.*

KOORDINAZIOARI ETA ESKUMENEI DAGOKIENEZ:

- *Nafarroan dauden polizia kidegoen eginkizunak koordinatzen aurrera egitea eta haien eginkizunak berrantolatu eta argitzea, haien aprobetxamendu hobea lortzeko.*
- *Polizia kidego guztien geokokapena ezagun dadila sustatzea, herritarrari ahal den modu onean arreta emate aldera.*

KONTRATAZIOARI DAGOKIONEZ:

- *Kredituaren erreserba egitea, behar den guztietan, aplikatzekoa den araudiaren arabera.*
- *Entrega epeak betetzea, batez ere kasuko esleipenak baloratzekoa den alderdia denean.*
- *Gastuaren bolumena aldeztatik aurretik balioets daitekeen kasuetan, dagozkion kontratazio-espeditenteak izapidetzea.*
- *Kontratuak esleitzeko espeditenteak, haien luzapenak edo enpresa publikoei egiten zaizkien enkarguen luzapenak behar den denborarekin izapidetzea, legezko estaldurarik gabe egin daitezkeen saihesteko.*

KUDEAKETARI DAGOKIONEZ:

- *Sakontasunez aztertzea ibilgailuen antzintasuna, eta beharren arabeko berritze plan bat diseinatzea, ondasun horien mantentze- eta konpontze-gastuak ahal den guztian saihesteko.*
- *Polizia-informazioko sistema ezartzen jarraitzea, halako moduz non aukera emanen duen emandako zerbitzuen ekonomia, efizientzia eta eraginkortasuna neurtzeko adierazleak lortzeko eta haien kostuei buruzko sistema analitiko bat ezartzeko.*

V. EGINDAKO LANAREN AZTERKETA XEHAKATUA

Aurreko atalean azaldutako ondorioak lortzeko bidea eman duen lanaren azterketa xehakatu aurkeztuko da ondoren.

V.1. FORUZAINGOKO PLANTILLARI BURUZKO ANALISIA (2010-2013)

V.1.1. Oinarrizko araudia

Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legeak Foruzaingoaren plantillarekin lotutako oinarrizko alderdi batzuk arautzen ditu; esate baterako, haren onspena, edukia eta abar.

Lanpostuak Betetzeko Erregelamendua onesten duen 27/2002 Errege Dekretuak, Foruzaingoaren Antolamendu eta Funtzionamenduaren Erregelamendua onesten duen 265/2004 Foru Dekretuak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla aldatzen duen 112/2012 Foru Dekretuak Foruzaingoaren burutzak eta destinoak betetzeko sistema ezartzen dute.

Aztertutako aldiari, Foruzaingoaren ekitaldi bateko abenduaren 31ko plantillak hurrengo urteko maiatzean (edo uztailan, kasu batean) argitaratzen dira NAOn. Zehazki, 2013koak 2014ko maiatzaren 13an argitaratu ziren.

V.1.2. Lanpostuen egoera administratiboa

Ondoren, 2010etik 2013ra bitarteko bilakaera erakusten dugu, plantillako plaza motaren arabera:

Lanpostuaren egoera administratiboa	2010/12/31		2011/12/31		2012/12/31		2013/12/31		Aldea (%) 2013/2010	Aldea (%) 2013/2012
	Lanpostu kopurua	%, guztizkoaren gainean	Lanpostu kopurua	%, guztizkoaren gainean	Lanpostu kopurua	%, guztizkoaren gainean	Lanpostu kopurua	%, guztizkoaren gainean		
Behin betiko edo behin-behineko moduan betetakoak	1.057	85,1	1.045	84,1	1.055	85,8	1.049	85,3	-0,8	-0,6
Eszedentzia edo zerbitzu bereziak	32	2,6	35	2,8	24	2,0	30	2,4	-6,3	25
Burutzetarako behin-behineko izendapenengatik erreserbatutakoak	79	6,4	78	6,3	89	7,2	80	6,5	1,3	-10,1
Hutsak	74	6,0	85	6,8	62	5,0	71	5,8	-4,1	14,5
Guztira	1.242	100	1.243	100	1.230	100	1.230	100	-1,0	0

Ikusten den bezala, plaza kopurua egonkor mantendu da aztertutako aldiari eta 1.235 plaza ingurukoa da. 2013an, 1.230 dira.

Gutxi gorabehera, plazen ehuneko 85,3 behin betiko nahiz behin-behineko moduan beteta daude; gainera, ehuneko 6,5 burutza jakin batzuen behin-behineko izendapenen ondorioz erreserbatutako plazak dira; plazen ehuneko 5,8, azkenik hutsik dago. Gainerako ehuneko 2,4a eszedentzian edo zerbitzu berezietan dauden pertsonen plazak dira.

V.1.3. Lanpostuak

2010-2013 aldian, plaza horiek honako lanpostuei zegozkien

Lanpostua	2010/12/31		2011/12/31		2012/12/31		2013/12/31	
	Lanpostu kopurua	%, guztizkoaren gainean	Lanpostu kopurua	%, guztizkoaren gainean	Lanpostu kopurua	%, guztizkoaren gainean	Lanpostu kopurua	%, guztizkoaren gainean
Foruzaingoa	866	69,7	866	69,7	866	70,4	866	70,4
Foruzaingoko kaboak	158	12,7	158	12,7	145	11,8	145	11,8
Foruzaingoko inspektoreordea	86	6,9	87	7,0	87	7,1	87	7,1
Foruzaingoko komisarioa	10	0,8	10	0,8	10	0,8	10	0,8
Foruzaingoko komisario nagusia	7	0,6	7	0,6	7	0,6	7	0,6
Polizia etxeko burua	7	0,6	7	0,6	7	0,6	-	-
Foruzaingoko inspektorea	27	2,2	27	2,2	27	2,2	27	2,2
Foruzaingoko alorreko burua	5	0,4	5	0,4	5	0,4	5	0,4
Foruzaingoko brigadaburua	16	1,3	15	1,2	15	1,2	16	1,3
Foruzaingoko dibisioko burua	13	1,0	13	1,0	13	1,1	20	1,6
Foruzaingoko taldeburua	45	3,6	46	3,7	47	3,8	46	3,7
Bulegoko burua	1	0,1	1	0,1	-	-	-	-
Foruzaingoko burua	1	0,1	1	0,1	1	0,1	1	0,1
Guztira	1.242	100	1.243	100	1.230	100	1.230	100

Plantillaren osaketa, lanpostuen araberakoa, oso antzekoa da ekitaldi guztietan. Lanpostuen ehuneko 70 Foruzaingoko agenteenak dira; ehuneko 12 kaboak dira; ehuneko zazpi inspektoreordeak dira eta ehuneko lau taldeburuak dira. Ehunekoaren gainerakoa inspektoreek, komisarioek edo brigadaburuek osatzen dute, besteak beste.

Aztertutako plantillen artean dauden antzekotasunak direla eta, 2013ko ekitaldiari buruzko analisisa egin da, lanpostu bakoitzeko plazen egoera administratiboari dagokionez eta plantillak, legeari jarraituz, eduki beharko lukeen osaketaren arabera. Honakoa da emaitza:

Lanpostua	Behin behineko edo behin betiko moduan betetakoak	Zerbitzu berezengatiko eszedentzia	Burutzengatiko erreserbak	Hutsak	Guztira
Foruzaingoa	815	21	0	30	866
Foruzaingoko kaboa	125	9	1	10	145
Foruzaingoko inspektoreordea	30	0	54	3	87
Foruzaingoko komisario	0	0	0	10	10
Komisario nagusia	0	1	5	1	7
Foruzaingoko inspektorea	0	0	19	8	27
Foruzaingoko alorreko burua	4	0	0	1	5
Foruzaingoko brigadaburua	13	0	0	3	16
Foruzaingoko dibisioko burua	19	0	0	1	20
Foruzaingoko taldeburua	42	0	0	4	46
Foruzaingoko burua	1	0	0	0	1
Guztira	1.049	31	79	71	1.230

Plantillak lanpostuei buruz 8/2007 Foru Legeak finkatutako informazioa jasotzen du, baina alderdi batzuk falta dira; besteak beste, zein enplegu edo kategoriatan egiten diren erreserbak; bigarren jarduerako lanpostuak; sartzeko modalitateak eta irauteko baldintzak, eta lanpostu hutsak daudenean haiek hornitzeko sistema.

V.1.4. Destinoak eta burutzak betetzeko sistemak

Foruzaingoareen plantilla txosten honetako 1. eranskinean erakutsitako egituraren arabera antolatzen da; honakoa da egitura hori, funtsean:

- Bost alor daude: Orotariko Ikuskapena, Barneko Segurtasuna eta Polizia Administratiboa, Trafikoa eta Bide Segurtasuna, Herritarren Segurtasuna eta Ikerketa.
- Alor horiek 13 dibisio dituzte, eta dibisioek, berriz, 14 brigada eta 35 talde.
- Orotariko Ikuskapenaren alorraren menpe egun dauden zazpi polizia-etxeak daude (Iruña, Tuter, Tafalla, Altsasu, Elizondo eta Zangoza), zeinek guztira bi brigada eta 12 talde baitauzkate.

Antolamendu-egitura horrek berarekin dakar plantillan burutza bat egotea alor, dibisio, brigada, komisaria eta talde bakoitzarentzat, eta burutza horiek araudian ezarritako kategoria profesionala duen pertsona batek betetzea. Zehazki, destinoen eta burutzen hornitzea, araudiaren arabera, honako prozeduraren bitartez egin behar da:

Komisario nagusi, komisario eta inspektore destinoak berariazko lehiaketaren sistemaren bitartez hornitu behar dira. Inspektoreorde, kabo eta polizia enpleguak, hornitzeko, berriz, aurreikusitako sistema orokorra lehiaketarena da, unitate jakin batzuen salbuespenarekin, haietan berariazko lehiaketa erabiliko baita.

Alorreko, dibisioko eta polizia-etxeko buruak libreki izendatu eta kargutik kenduko ditu Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak. Polizia laguntzako bulegoetako, brigadetako eta taldeetako burutzak berariazko lehiaketaren bitartez beteko dira, salbu eta plantilla organikoak, aparteko izaeraz eta burutzaren berariazko ezaugarrii erreparatuta, aurreikusten duenean haiek izendapen askeko sistemaren bitartez betetzea.

Alorretako agintea komisario nagusi batek beteko du, dibisioetako komisario batek, brigadetako inspektore batek eta taldeetako inspektoreorde batek. Eskatutako enplegurako langilerik eskuragarri

ez badago, burutzak behin-behinekoz bete ahalko dira inguruabar horrek irauten duen aldian, behera-goko hurrengo enplegu-mailako langileekin, aurrez Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak edo Barne zuzendari nagusiak izendatuta.

Plazak hornitzeko sistema eta haiek lanpostuaren arabera betetzeko sistema aztertu dugu, 2013ko abenduaren 31ko plantillan jasotako informazioaren arabera, eta honako alderdiak ikusi ditugu:

- Izendapen askeko sistema modu orokorrean erabiltzen da burutzetarako izendapenak egiteko, araudian esandakoa gorabehera.

- Aipatu den bezala, lanpostu hutsetan ez da adierazten hornikuntza sistema zein izanen den.

- Koherentziarik ez dago plantillan aurreikusitako dibisio-burutzen –araudiaren arabera komisarioek bete beharrekoen– kopuruaren (20) eta aurreikusitako komisario plazen kopuruaren (10) artean.

- Burutzen ehuneko 36 legean aurreikusitakoez beheitiko enpleguek edo kategoriek betetzen dituzte. Izan ere, dibisioetako burutzak 14 inspektorek eta bost inspektoreordek betetzen dituzte. Horrek esan nahi du brigadetako burutzak, inspektoreek bete behar dituztenak, inspektoreordeek betetzen dituztela, kategoria hori daukan behar adina langile ez dagoelako.

Halaber, inspektoreordeek burutzak betetzea ez dator bat 265/2004 Foru Dekretuan ezarritakoarekin; egoera horri konponbidea ematen zaio haiek behin-behinekoz inspektore izendatuz, enpleguan edo kategorian igortzeko lehiaketa-prozedura, araudian jasotakoa, jarraitu gabe.

- bigarren jarduera langile batzuen egoera administratiboari dagokio; izan ere, harekin lortu nahi da gaitasun psikofisiko egokia bermatzea poliziak aktiboan dauden bitartean, eta emandako zerbitzuaren eraginkortasuna bermatu nahi da. Foruzaingoak betetzen dituen eginkizunen ezaugarriak direla-eta, alderdi hori oso garrantzitsua da; hala eta guztiz ere, ez dago horri buruzko araupetzerik. Txosten hau idazteko egunean, alderdi honen araupetzea lantze-prozesuan dago.

V.1.5. Ordainsarien baldintzak

Plantillaren ordainsari-baldintzak ez dira aldatu aztertutako aldian, eta 1/2005 Foru Dekretuan jasotakoak dira.

- Oinarrizkoak: mailaren arabeko hasierako soldata, gradua eta antzinasuna.
- Osagarriak: berariazko osagarria, lanpostu-osagarria eta burutza-osagarria.
- Beste ordainsari batzuk: familia laguntza, jai egunetan edo gaueko ordutegian lan egiteagatiko konpentsazioa, aparteko orduengatiko konpentsazioa edo familia-laguntza, besteak beste.

Ordainsari-kontzeptu horiek aztertuta, honako alderdiak azpimarra ditzakegu:

- Berariazko osagarria bera da Foruzaingo osoarentzat, eta ehuneko 41 da; burutza-osagarria ehuneko bostekoa da, kargu hori diharduenarentzat.
- Alde nabarmenak daude lanpostu-osagarrietan lanbide-kategoria beraren barruan, zerbitzuak zein antolamendu-unitatetan ematen diren, honako taula honetan erakusten den bezala:

Lanpostua		Lanpostu-osagarria	Agente kopurua
Foruzaingoko agentea	Dibisio Tekniko Orokorra, Herritarren Babesa (erakinak eta instalazioak)	8,83	172
	Herritarren babesa (prebentzioa), Ingurumena, Trafikoa	13,09	473
	Informazio Dibisioa, Esku Hartzeko Dibisioa, Joko eta Ikus-kizunen Dibisioa, Polizia Zientifikoa, Polizia Judiziala, Barne Araubidea	28,56	153
	Agintariak Babestea	58,37	49
Foruzaingoko kaboa	Dibisio Tekniko Orokorra, Herritarren Babesa (erakinak eta instalazioak)	21,61	23
	Herritarren babesa (prebentzioa), Ingurumena, Trafikoa	25,87	88
	Informazio Dibisioa, Esku Hartzeko Dibisioa, Joko eta Ikus-kizunen Dibisioa, Polizia Zientifikoa, Polizia Judiziala, Barne Araubidea	41,34	25
	Agintariak Babestea	65,19	10
Foruzaingoko inspektoreordea	Herritarren Babesa (eraikinak eta instalazioak)	12,5	7
	Dibisio Tekniko Orokorra	14,96	26
	Herritarren babesa (prebentzioa), Ingurumena, Trafikoa	19,05	55
	Informazio Dibisioa, Esku Hartzeko Dibisioa, Joko eta Ikus-kizunen Dibisioa, Polizia Zientifikoa, Polizia Judiziala	35,41	42
	Agintariak Babestea	53,32	5
Foruzaingoko inspektorea	Foruzaingoko inspektorea	59,77	54
Foruzaingoko komisarioa	Foruzaingoko komisarioa	45,22	10
Komisario nagusia Foruzaingoa	Foruzaingoko komisario nagusia	55,22	12
Zehaztu gabea			26
Guztira			1.230

Oro har, lanpostu-osagarri handiena jasotzen duen antolamendu-unitatea Agintarien Babesarena da, eta gutxien jasotzen duena, berriz, Dibisio Orokor Teknikoarena eta Herritarren Babesarena (erakinak eta instalazioak) dira.

- Araudiak ezartzen du Foruzaingoaren eginkizunen izaera eta haren betetze egokia direla-eta, beharrezkoa dela kideak sasoi onean egotea, eta horretarako behar den prestakuntza ezin dela lanorduetan egin. Prestakuntza horrek dakarren ahalegin pertsonala konpentsatzeko, aurreikusita dago urtean 126 orduko konpentsazioa ematea, baldin eta proba fisiko batzuk gainditzen badira, edo, bestela, ehuneko hamarreko osagarria jasotzea. Osagarri hori nahitaez jasotzen dute Agintarien Babesari atxikitako kideak, zeinak 63 baitziren 2013an. 2013an, proba horietara agenteen ehuneko 97 aurkeztu ziren, eta guztiak gainditu zituzten. Horietatik, ehuneko 15ek adierazitako osagarria kobratu zuten, eta gainerakoek, ehuneko 85ek, ordu konpentsazioaren alde egin zuen: guztira, 112.140 ordu izan ziren, hain zuzen ere 80 agenteren urteko jardunaren adina ordu.

V.1.6. Abenduaren 31n jardunean ari ziren agenteen egiazko kopurua

Foruzaingoaren oroitidazkiaren arabera, abenduaren 31ko efektiboen kopuru erreala, jarduketarloan arabera, honakoa zen:

Arloa	2010		2011		2012		2013		Aldea (%)	
	Agente kopurua	%, guztizkoaren gainean	Agente kopurua	%, guztizkoaren gainean	Agente kopurua	%, guztizkoaren gainean	Agente kopurua	%, guztizkoaren gainean	2013/2010	2013/2012
Orotariko Ikuskapena	460	42,0	450	41,2	449	41,2	422	39,0	-8,3	-6,0
Trafikoa eta bide-segurtasuna	151	13,8	144	13,2	160	14,7	164	15,1	8,6	2,5
Herritarren segurtasuna	250	22,8	253	23,2	238	21,8	226	20,9	-9,6	-5,0
Ikerkuntza Kriminala	83	7,6	83	7,6	83	7,6	102	9,4	22,9	22,9
Barneko segurtasuna eta polizia administratiboa	151	13,8	162	14,8	160	14,7	169	15,6	11,9	5,6
Guztira	1.095	100	1.092	100	1.090	100	1.083	100	-1,1	-0,6

Agente kopurua egonkor mantendu da aztertutako aldian, alde handirik izan gabe; izan ere, 2013an, 1.083 agente ziren, 2010ean eta 2012an zeuden kopuruak ehuneko 1,1 eta 0,6 jaitsi ondoren, hurrenez hurren.

Polizia honetako agente efektiboen adina honako tartetan kokatzen da:

Adin tartea	Agenteen ehunekoa, guztizkoaren gainean
26-29	1,6
30-34	12,0
35-39	22,1
40-44	25,6
45-49	19,9
50-54	12,6
55-59	5,2
60-64	1,0

Aztertutako aldian, langileen jarduera-arloan arabera banaketa ere antzeko portzentajeetan mantendu da: gutxi gorabehera ehuneko 41 Orotariko Ikuskapenari dagozkio; ehuneko 22 Ikerkuntza Kriminalari; ehuneko 15 Barneko Segurtasunari eta Polizia Administratiboari; ehuneko 14 Trafikoari eta Bide Segurtasunari, eta gainerako ehuneko zortzia Herritarren Segurtasunari.

Polizia-etxeak, funtzionalki, Orotariko Ikuskapenaren Alorraren menpean daude. Polizia-etxeek garatutako jarduera kontuan hartuta –1. eranskinean islatutakoa da– Foruzaingoko agente guztien ehuneko 50 inguru Herritarren Segurtasunari atxikita daude.

Alor, dibisio, brigada eta talde guztiak Foruzaingoaren eginkizunekin lotuta daude. Alabaina, Orotariko Ikuskapenaren alorrean Barne Araubidearen Dibisioa eta Dibisio Tekniko Orokorra daude, zeinek, gainera, lan administratiboak egiten dituzten. Honakoak dira dibisio horiei atxikitako langileak, plantillaren arabera:

Antolaketa-egitura	Plantillako agente-kopurua			
	2010/12/31	2011/12/31	2012/12/31	2013/12/31
Barne araubidearen dibisioa	2	1	1	1
Kalitatearen eta diziplina araubidearen taldea	5	5	4	4
Ebaluazioaren eta ikerketaren taldea	5	5	3	3
Barne araubidearen dibisioa, guztira	12	11	8	8
Baliabideen administrazioarako brigada	12	12	12	13
Polizia-administrazioaren brigada	4			
Garapen teknologikoaren brigada	10	10	10	10
Dibisio tekniko orokorra	2	1	1	1
Lotura taldea	2	2	2	2
Prestakuntza taldea	7	7	8	8
Kudeaketa administratiboko taldea	35	40	39	39
Burutza taldea	4	2	3	3
Giza baliabideen taldea	9	9	8	8
Dibisio tekniko orokorra, guztira	85	83	83	84
Orokorra, guztira	97	94	91	92

Ikus daitekeen bezala, dibisio horietan, aztertutako aldian, 93 pertsona inguru daude lan horiek egiten.

Antolamendu unitate horien barruan, Kudeaketa Administrazioaren taldeko eta Giza Baliabideen taldeko langileak, zeinak, 2013an, 47 baitira, soilik lan administratiboak egiten dituzte, horri buruzko arauditik erator daitekeenaren arabera. Txosten hau idazteko garaian, plaza guztiak beteta daude.

Alderatu ditugu, batetik, antolamendu unitate horietan lan egiten duten 45 pertsona ingururen ordainsariak eta, bestetik, lan administratibo hori Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren langile administratiboen egiten balute ordainduko liratekeenak. Kalkuluan mailako oinarriko ordainsaria sartu da (gradua eta antzinasuna kenduta), bai eta Foruzaingoko edo Administrazioaren, kasuan kasu, plantillako lanpostuaren ordainsari osagarriak ere. Hona lortutako emaitza, eurotan:

Foruzaingoko langileak	Administrariak	Pertsona-kopurua	Foruzaingoko ordainsariak	Administrarien ordainsariak	Aldea
Foruzaingoko kaboa	Administraria	4	114.970	89.063	25.907
Foruzaingoko taldeburua	Diplomatu bulegoburua	2	67.405	63.692	3.714
Foruzaingoa	Administraria	39	1.034.453	868.364	166.089
Guztira		45	1.216.828	1.021.119	195.710

Ikusten denez, 195.710 euroko aldea dago ordainsarien artean, eginkizunak nori betetzen dituen. Alderaketa horretan eragina duten hiru alderdi gehiago badaude:

- Langile horiek Foruzaingoa egiten duten lanaldia gaur egun goiz eta arratsaldekoa da; horrek berarekin dakar urteko 1.554 orduko zenbatekoa. Zenbateko hori aplikatu leke enplegu horretan ari litezkeen Nafarroako Gobernuaren langileei.

Hala eta guztiz ere, Foruzaingoko kideek 126 orduko murrizketa daukate, aurrez aipatutako proba fisikoak gainditzeagatik; hori dela eta, Foruzaingoko langileen lanaldi efektiboa 1.436 ordukoa izanen litzateke, eta Nafarroako Gobernuaren langileena, berriz, 1.554 ordukoa.

- Nafarroako Gobernuaren Administrazioaren langileen lanpostuetara sartzeko, gisa horretako eginkizunetan gaikuntza eta kompetentzia izatea eskatzen da; Foruzaingoa kasuan, sartzeko baldintza administratiboen bestelakoak dira; hori dela eta, ez dago bermatuta horrelako lanetarako prestakuntza dutenik.

• Jo da lan guztia administrariet eginen luketela (C mailako langileak), haiek Foruzaingoko kideen mailekin parekatze aldera. Hala eta guztiz ere, ohikoa da lan horiek administrari laguntzaileek ere egitea. Hala balitz, aipatutako aurrezkoa handiagoa izanen litzateke.

V.1.7. Lanaldia

Honakoak dira Foruzaingoko agente efektiboen lanaldi ohikoenak:

Lanaldia	Ordu kopurua/urteko egunak	Agente kopurua	Agente efektiboen guztizkoan zenbat egiten duten
Goiza-arratsaldea-gaua	1.457 ordu	848	78
Goiza-arratsaldea (jai eguna)	1.554 ordu	142	13
Agintariak Babestea	165 egun	78	7
Guztira		1.068	98

Agente efektiboen ehuneko 78k urteko 1.457 orduko lanaldia dute; ehuneko 13k 1.554 orduko lanaldia, eta gainerako ehuneko zazpiak 165 egunekoak.

Agente bakoitzaren kasuan proba fisikoak gainditzeagatik lortutako orduak kenduz gero, bai eta aparteko orduak egitearen, jai egunetan lan egitearen edo gaueko ordutegian lan egitearen ondoriozkoak ere, agenteen batez besteko lanaldi efektiboa urteko 1.348 ordukoa da.

V.1.8. Aurkeztutako errekurtsioak

2011n, 2012an eta 2013an guztira 321 errekurtsio edo erreklamazio aurkeztu dira langile arloa dela eta.

Errekurtsioak edo erreklamazioak aurkezteko arrazoi nagusiek zerikusia dute aparteko orduekin eta enplegu-eskaintza publikorako egindako deialdiekin. Errekurtsio edo errekurtsio horien ehuneko 50 bide administratiboan edo judizialean ezetsi dira; ehuneko 30 ebazteko bidean daude, eta ehuneko 20 baietsi dira.

V.2. PLANTILLAKO AGENTEEN KOPURUAREN BESTE POLIZIA AUTONOMIKO BATZUETAKO AGENTE-KOPURUAREN ARTEKO ALDERAKETA

Honakoak dira beren autonomia-estatutuan polizia-kidego bat izatea aurreikusita duten autonomia erkidegoak: Euskadi (Ertzaintza), Katalunia (Mossos d'Esquadra) eta Kanariar Uharteak.

Honakoak izan dira agente autonomikoen eta gainerako polizia kidegoetako agenteen kopurua zein den jakiteko erabili diren informazio iturriak:

- Euskadi: Ertzaintzaren webgunea, non plantillako lanpostuen zerrenda ageri baita.
- Katalunia: Kataluniako Estatistika Institutuaren urtekaria, non erabiltzen baita erkidego horretako Barne Sailaren eta Polizia Zuzendaritza Nagusiaren informazioa, polizia autonomikoaren eta tokiko poliziaren plantillari buruzkoa.
- Kanariar Uharteak: Kanariar Uharteetako Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege Orokorra.
- Guardia Zibila eta Polizia Nazionala: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatistika Aldizkaria, 2014ko urtarrilaren 1ekoa.
- Tokiko Polizia: Nafarroan NAO 2013rako argitaratutako plantilla organikoak.

2013ko ekitaldirako lortutako informazioaren alderaketak honako emaitzak ematen ditu:

	Nafarroa	Euskadi	Katalunia	Kanariar Uharteak
Agente autonomikoen kopurua	1.230	8.000	17.080	300
Azalera (Km ²)	10.391	7.235	32.091	7.493
Biztanleak	644.477	2.191.682	7.553.650	2.118.679
Km ² /agente autonomikoa	8,45	0,9	1,88	25
Biztanle kopurua/agente autonomikoak	524	274	442	7.062

Honakoak dira alderaketa horren emaitzak:

- Agente bakoitzeko biztanle-kopuru handiena Kanariar Uharteetakoa da, non 7.062 biztanle dauden agente bakoitzeko; ondoren, Nafarroa dator, 524rekin eta Euskadi 274rekin.
- Agente bakoitzeko kilometro koadroen kopuruak joera bera erakusten du: 25 km² Kanariar Uharteetan, 8,45 km² Nafarroan, eta 0,9 km² Euskadin.

Aurrekoa gorabehera, polizia kidego autonomiko bakoitzaren eskumenen arteko aldeak eta erkidegoetako poliziaren zabalpen-mailan dauden desberdintasunek eragiten dute herritarren segurtasunaren eginkizunak Estatuko segurtasun-kidego eta indarrekin osatzea. Eta horretaz gainera, tokiko polizia dago. Efektibo horiek guztiak gehituz gero, honakoa da emaitza:

	Nafarroa	Euskadi	Katalunia	Kanariar Uharteak
Agente autonomikoen kopurua	1.230	8.000	17.080	300
Guardia Zibileko eta Polizia Nazionaleko efektiboen kopurua	2.277	4.154	6.779	7.205
Tokiko polizien agente-kopurua	795	3.138*	10.586	3.215
Efektiboak, guztira	4.302	15.154	34.445	10.720
Azalera (Km ²)	10.391	7.235	32.091	7.493
Biztanleak	644.477	2.191.682	7.553.650	2.118.679
Km ² /efektiboak, guztira	2,42	0,48	0,93	0,70
Biztanle kopurua/efektiboaren guztizkoa	149,81	144,63	219,30	197,64

(*) Lortu ahal izan dugun azken datu ofiziala 2005ekoa da.

Horren harira, alderdi hauek azpimarra daitezke:

- Agente bakoitzeko biztanle-kopuru handiena Kanariar Uharteetakoa da, non 219 biztanle dauden agente bakoitzeko; ondoren, Nafarroa eta Euskadi datoz 150ekin eta 145ekin, hurrenez hurren.
- Agente bakoitzeko kilometro koadro kopuru handiena Nafarroan dago (2,42) eta txikiena, berriz, Euskadin (0,48).

V.3. FORUZAINGOAREN ETA GAINERAKO POLIZIA-KIDEGOEN ESKUMENAK

Polizia kidego guztiek oinarritzko eginkizun bera betetzen dute, zeina baita segurtasun publikoari eustea. Eginkizun orokor hori eginkizunen abaniko zabal batean zatitu daiteke; horietako batzuk kidego guztiei dagozkie eta beste batzuk, berriz, horietako batzuei berariaz.

Nafarroan Foruzaingoko, Tokiko Poliziako, Guardia Zibileko eta Polizia Nazionaleko agenteak batera daude.

Nafarroan Guardia Zibilak honako egitura dauka: 52 postu, sei destakamendu, sei konpainia, komandantzia bat, zerbitzuetako zentro eragile bat, eta trafikoko sektorea eta azpisektorea.

Polizia Nazionalak honako dependentzien bitartez ematen ditu zerbitzuak Nafarroan: nortasun agiri nazionala emateko bi bulego (Tuteran eta Iruñean, non nagusiki administrarietara jarduten baitute), Atzerriartasunaren eta Mugen Brigada Probintziala (Iruñean), Tuterako tokiko polizia-etxea eta Poliziaren Nafarroako Goi Buruzagitza (Iruñean).

Nafarroako Tokiko Polizia, 2013an, erkidego osoan banatutako 795 agentek osatzen zuten, halako moduz non kopururik handiena Iruñeko Udalean kontzentratuta dagoen, 475 agenterekin.

Polizia kidego horien eginkizunak hurrengo araudian jasota daude, eta txosten honen 2. eranskinean gehitu dira:

- Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko 2/1986 Lege Organikoa: 38. artikuluan jasotzen dira polizia autonomiko eskumen berekiak, Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoen laguntzarekin eginen direnak eta aldi berean eta bereiztezinezko moduan beteko direnak. Halaber, 11. eta 12. artikuluek ezartzen dute zein diren Guardia Zibilaren eta Polizia Nazionalaren eskumen bereki eta eskusiboak.
- Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legeak Foruzaingoarean eta Tokiko Poliziaren eginkizunak deskribatzen ditu.

- Segurtasun Publikoari buruzko 8/2006 Foru Legeak ere Foruzaingoaren eta Tokiko Poliziaren eginkizunak deskribatzen ditu.

Arau horietatik atera daitekeen ondorioa da polizia-sistemaren ezaugarria kidegoen aniztasuna dela, eta kidego horien eginkizunak batzuetan gainjartzen direla, eta Foruzaingoaren kasuan, joko eta ikuskizunen zaintzaren kasuan izan ezik, eginkizun guztiak beste kidego batzuekin partekatuak dira. Hori dela eta, esleitutako eginkizunak, ekonomia, efizientzia eta eraginkortasun handiagoz bete daitezten, funtsezkoa da kidego horien arteko koordinazioa.

Ondoren, Foruzaingoaren eta Nafarroan dauden gainerako kidegoen arteko koordinazio-tresnak aztertuko ditugu:

V.3.1. Nafarroako Segurtasun Batzordea.

Estatuaren eta Nafarroaren lankidetzaren organo parekidea da, segurtasunarekin lortutako gaietarako. Alde bakoitzeko lau kide dauzka. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan araututa dago.

2007ko azaroan, Nafarroako Gobernuaren erabakiz, Nafarroako Gobernuko Lehendakari, Justizia eta Barne kontseilaria, Barne zuzendari nagusia, Nafarroako Segurtasun Publikoko Sistemaren Zerbitzuko zuzendaria eta Segurtasun Politiken Garapenerako Zerbitzuko zuzendaria izendatu ziren Foru Komunitatearen ordezkari.

Batzordearen azken bilera 2011ko urrian egin zen 2012an Nafarroako Gobernuaren egitura organiko aldatu zenez eta Nafarroako Segurtasun Publikoko Sistemaren Zerbitzua desagertu zenez, Batzordearen hurrengo deialdi bati begira gobernu-erabaki bat beharko da, laugarren ordezkaria izendatze aldera.

V.3.2. Tokiko Polizien Koordinazio Batzordea

Nafarroako Gobernuaren aholku-organoa bat da. Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko 8/2006 Foru Legea onestearekin sortu zen, eta haren eginkizun nagusia zen tokiko poliziaren jarduerari buruzko plangintza hobetzea eta eskuragarri zeuden baliabideen aprobetxamendu efizientea egitea.

Honakoek osatzen dute: batzordeburua (Lehendakari, Justizia eta Barne kontseilaria), batzordeburuordea (Barne zuzendari nagusia), idazkaria (Segurtasun Publikoko Sistemaren Zerbitzuko zuzendaria) eta 13 batzordekide (tokiko polizia duten toki entitateen 10 ordezkari eta Segurtasun Politiken Garapenerako Zerbitzuko zuzendaria, Lehendakari, Justizia eta Barne Departamentuko Araubide Juridikoaren eta Langileen Zerbitzuko zuzendaria eta Foruzaingoko burua).

Batzorde honen azken bilera 2010ean izan zen. 2012an zerbitzuak bateratu direnez, beharrezkoa da Lehendakari, Justizia eta Barne Departamentuko funtzionario bat izendatzea organo horretako idazkari gisa.

V.3.3. Herritarren Segurtasunerako Kontseilua

Nafarroako Gobernuaren aholkurako eta parte-hartzerako organo bat da. 8/2006 Foru Legea onestearekin sortu zen, eta modu zehatzagoan araututa dago 13/2011 Foru Dekretuan.

Honakoak dira haren oinarrizko eginkizunak: unean uneari egokitutako segurtasun publikoko politika bat diseinatzea; Nafarroako segurtasun publikoaren egoera orokorra aztertu eta ebaluatzea, eta herritarren bizikidetasuna nahas dezaketen faktoreen jarraipena egitea.

Ez da sekula ere bildu.

V.3.4. Nafarroako Segurtasun Publikoaren Behatokia

Nafarroako segurtasun publikoaren analisirako, koordinaziorako, jarraipenerako eta prospekziarako organo bat da. 21/2011 Foru Dekretuaren bidez sortu zen.

Honakoak dira oinarrizko eginkizunak: Nafarroako kriminaltasunaren bilakaera eta haren arrazoiak eta erantzunak aztertzea; segurtasun publikoaren egoerari buruz gogoeta egitea, eta unean uneko egoerak eskatzen dituen segurtasun publikoko neurri zuzentzaileak eta proposamenak egitea. Gainera, aurreikusita dago urteko txosten bat egin dezala Nafarroako barne segurtasunari buruz, zeina organo interesdunen, eta bereziki atal honetan aipatutakoen, eskura jarriko baita.

Ez dago jasota horri buruzko inongo bilerarik egin denik, ez eta txostenik egin denik ere.

V.3.5. Segurtasuneko Tokiko Batzarra

8/2006 Foru Legeak ezartzen du tokiko polizia duten udalerrietan segurtasuneko tokiko batzar bat eratuko dela, eta batzar hori udalerrian lan egiten duten kidego desberdinen lankidetzarako eta koordinaziorako organo bat dela.

Honakoek osatuko dute: udaleko alkatea, lehendakari gisa, eta herritarren segurtasunaren arloko zinegotzi delegatua, tokiko poliziako burua, Foruzaingoaren burua edo hark eskuordetutako pertsona, Guardia Zibileko burua eta polizia nazionalekoa edo haiek batzarkide gisa eskuordetzen dituztenak.

Honakoak izanen dira batzarraren oinarrizko eginkizunak: udaleko segurtasun publikoaren egoera aztertu eta baloratzea; beharrak eta eskura dauden baliabideak ebaluatzea; dauden kidegoen arteko koordinazio eta lankidetzak moduak ezartzea; udalerrian dauden segurtasun pribatuko zerbitzuak eza-gutzea, eta tokiko segurtasun plana lantzen parte hartzea.

V.3.6. Koordinazio-komitea eta -batzordeak

Segurtasuneko Batzarrak Koordinazio Komitea sortu zuen, funtzionarioek eta Nafarroako eta Estatu segurtasunaren arloko arduradunek osatua. Komitea maizago biltzen da Batzarra baino. Komiteak koordinazio batzorde batzuk sortu zituen, Foruzaingoaren alorrei dagozkienak.

Zehazki, batzordeak daude Foruzaingoaren jardura banatuta dagoen bost alorretako bakoitzarentzat: orotariko ikuskapena, barneko segurtasuna eta polizia administratiboa, trafikoa, garraioa eta bide segurtasuna, herritarren segurtasuna eta ordena publikoa eta ikerkuntza kriminal eta judiziala.

Batzorde horiek maizago biltzen dira, eta, oro har, horietan guztietan jarduteko erabakiak hartzen dira, salbu eta herritarrei berehalako laguntza ematearen kudeaketan, halakoetan herritarrak deitzen duenean esku hartzen delako.

Hartara, herritarren deiak, polizia-kidegoek esku-hartzeren bat egiteko eskatzekoak, Nafarroako Larrialdi Agentziara, Foruzaingora edo Nafarroan dauden gainerako polizia-kidegoetara egin daitezke. Foruzaingoaren Aginte eta Koordinazio Zentroa da Nafarroako Larrialdi Agentziaren deiak jasotzen dituenak, bai eta zuzenean kidego horretara egindako deiak ere, baina ez ditu jasotzen gainerako kidegoei egindakoak.

Nafarroan dauden polizia kidegoen arteko koordinazio ideialak eskatuko luke guztiek teknologia bera eta komunikazio-sistema bera edukitzea eta lokalizatzeko moduan egotea, haiekin berehala harremanetan jarri ahal izateko. Horrek erraztuko luke arreta ahal den azkarrena izatea. Hala eta guztiz ere, herritarrek gainerako polizia-kidegoetara ere dei dezaketenez, kasuko arreta deia jasotzen duen kidegoak emanen du, eskura dauzkan baliabideekin.

V.4. AURREKONTU-BETETZEAREN BILAKAERA (2004-2013)

Nafarroako Gobernuaren "Herritarren Segurtasuna" aurrekontu-programak Foruzaingoaren gastuak eta diru-sarrerak biltzen ditu. Programa horretan kontabilizatutako diru-sarrerak txostenengatik, lagun egiteengatik edo ibilgailuen egonaldiengatik ordaindu beharreko tasei dagozkie.

Jokoen, ikuskizunen edo herritarren segurtasunaren esparruetan Foruzaingoak, bere eginkizunetan diharduela, ezarritako isunengatik aitortutako diru-sarrei dagokienez, "Barneko zuzendaritza eta zerbitzu zentralak" aurrekontu-programari egozten zaizkio. Garraioen arloko zehapenetatik heldu diren diru-sarrera batzuk badaude, honako aurrekontu programan kontabilizatzen direnak: "Mugikortasunaren eta garraioen antolamendua".

Ondoren zehazten dugu zein izan diren Foruzaingoaren aurrekontu-programaren kapituluz kapituluko gastua eta diru-sarrerak azken hamar urteetan, hain zuzen 2004tik 2013ra (eurotan):

"Herritarren Seguratasuna" aurrekontu-programa

Gastuak	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira	guztizkoaren gainean (%)	Aldea (%) 13-04	Aldea (%) 13-12
1. kapituluua. Langile-gastuak	22.943.035	26.822.648	30.209.799	35.753.610	39.853.498	42.389.809	44.578.897	46.040.132	44.401.436	45.872.458	378.865.325	84	100	3
2. kapituluua. Ondasun aruntak eta zerbitzuak	3.193.605	4.860.631	4.814.367	6.384.229	6.562.579	6.294.024	7.162.608	6.663.559	5.746.730	4.058.081	55.740.412	12	27	-29.
6. kapituluua. Inbertsio-gastuak	1.216.679	691.117	2.252.769	1.956.586	3.864.967	1.827.378	1.555.668	2.136.300	1.256.113	741.001	17.498.577	4	-39	-41
Orokorra, guztira	27.353.319	32.374.396	37.276.935	44.094.425	50.281.044	50.511.211	53.297.173	54.839.990	51.404.279	50.671.540	452.104.314	100	85	-1
Guztizko aldea (%), aurreko urtearen gainean	-	18	15	18	14	0,5	5	3	-6	-1				
Diru-sarrerak														
3. kapituluua. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	74.801	85.407	96.121	110.593	111.893	102.382	98.419	100.394	101.078	94.271	975.360	100	26	-7
Orokorra, guztira	74.801	85.407	96.121	110.593	111.893	102.382	98.419	100.394	101.078	94.271	975.360	100	26	-7
Guztizko aldea (%), aurreko urtearen gainean	-	14	13	15	1	8	-4	2	1	-7				

"Barneko Zuzendaritza eta Zerbitzu Zentralak" aurrekontu-programa

Diru-sarrerak	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira	guztizkoaren gainean (%)	Aldea (%) 13-04	Aldea (%) 13-12
3. kapituluua. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	153.384	155.702	127.556	159.263	188.086	609.179	722.395	646.891	492.666	878.638	4.133.760	100	473	78
Orokorra, guztira	153.384	155.702	127.556	159.263	188.086	609.179	722.395	646.891	492.666	878.638	4.133.760	100	473	78
Guztizko aldea (%), aurreko urtearen gainean	-	2	-18	25	18	224	19	-10	-24	78				

"Mugikortasunaren eta garraioaren antolamendua" aurrekontu-programa

Diru-sarrerak	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira	% guztizkoaren gainean	Aldea (%) 13-04	Aldea (%) 13-12
3. kapituluua. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	4.093.333	3.651.125	4.831.931	3.675.706	5.007.238	5.611.649	4.378.203	4.807.129	4.149.002	3.468.983	43.674.299	100	-15	-16
Orokorra, guztira	4.093.333	3.651.125	4.831.931	3.675.706	5.007.238	5.611.649	4.378.203	4.807.129	4.149.002	3.468.983	43.674.299	100	-15	-16
Guztizko aldea (%), aurreko urtearen gainean	-	-11	32	-24	36	12	-22	10	-14	-16				

Aurreko taula aztertuta, honako alderdiak azpimarra ditzakegu:

- Aztertutako aldiko guztizko gastua 452 milioikoa da; diru-sarrerak, berriz, milioi bat ingurukoak dira. Garraioaren arloko zehapenetatik eta isunetatik heldu diren diru-sarrerak 43,67 milioikoak eta 4,13 milioikoak dira, hurrenez hurren, aintzat hartu diren urteetan.
- Aldi guztia hartuta, gastuek ehuneko 85 egin dute gora, bereziki langile-gastuek gora egin dute-lako. Programako diru-sarreak ehuneko 26 egin dute gora eta isunengatik aitortutakoek, berriz, ehuneko 473.
- Gastuak ehuneko 10 baino gehiago handitzen joan ziren 2008ra arte. Urte horretatik aurrera, berriz, igoyerak ehuneko bostekoa baino txikiagoak dira; 2012tik aurrera, gastuek behera egin dute.
- 2013ko gastuak aurreko urtekoen oso antzekoak dira, zeren eta ehuneko bat baizik ez baitira jaitsi, zeren eta inbertsioetan eta ondasun arrunt eta zerbitzuetan egindako gastuek behera egin baitute. Programako 2013ko diru-sarrerak ehuneko zazpi jaitsi ziren, baina "Barne zuzendaritza eta zerbitzu zentralak" aurrekontu-programan aitortutakoek ehuneko 78 egin dute gora.
- Langile-gastuak 379 milioikoak dira, eta programako handienak dira, zeren eta aintzat hartutako aldian izandakoen ehuneko 84 baitira; 2013an, ehuneko hiru eta ehuneko 99,9 egin zuten gora, 2012. urtekoekin eta 2004. urtekoekin alderatuta, hurrenez hurren.
- Ondasun arrunt eta zerbitzuetan egindako gastuek, 56 milioikoek, aztertutako aldiko gastu guztien ehuneko 12 egiten dute. 2013an, 2012koen aldean, ehuneko 29 egin dute behera, eta 2004arekin alderatuta ehuneko 27 egin dute gora.
- Inbertsioetan egindako gastuak gainerako ehuneko laua ematen dutenak dira, 18 milioi euroekin, gutxi gorabehera, 2004-2013 aldian. 2013an, ehuneko 39 eta ehuneko 41 egin zuten behera 2012koekin eta 2004koekin alderatuta.

Bestalde, Nafarroako finantza- eta zerga-jarduera, daukan foru araubidea dela eta, Hitzarmen Ekonomikoak arautzen du, zeina baita zehazten duena zein den Nafarroak Estatuko zama orokorretarako egin behar duen ekarpena. Ekarpene hori zenbait kontzepturengatik minoratzen da, eta horietako bat lotuta dago Foruzaingoak bere gain hartutako eskumenekin.

Hitzarmen Ekonomikoaren seigarren xedapen gehigarrian honakoa ezartzen da: "*...bi administrazioek, elkarrekin ados jarrita, urtero, modulu-multzo bat aplikatuz, ezarriko dute zein den Nafarroako Foru Komunitateak poliziaren arloan baliatutako eskumenen kostuaren balorazioa, eskumen horien baliatze efektiboa kontuan hartuta...*".

Polizia arloan Nafarroako baliatutako eskumenak baloratzeko honako prozedura adostu da:

Lehenena. Hitzarmenaren aplikazioko oinarri-urtean, modulu bateratu bat lortzea, non bai langile gastuak –Nafarroan destinoa duten Estatuko segurtasun-kidego eta indarretako kideek jasotzen dituzten ordainsarrietatik abiatuta, horren barne direla gizarte-aurreikuspeneko eta osasun laguntzako gastuak, Gizarte Segurantzaren Araubide orokorrean ezarritako kotizazioei dagozkienak–, bai zerbitzuen funtzionamendu zuzenerako beharrezkoak diren gastu arruntak eta inbertsio-gastuak ere.

Finantzaketarako kalkulatu zen azken modulu bateratua, 2010ekoa, 56.950 eurokoa da. Ez dago jasota finantzaketarako modulu bateratuaren kalkularen xehetasuna; hori dela eta, ezin izan dugu egiaztatu gokia den.

Bigarrena. Modulu hori urtero gaurkotzea, horretarako ezarritako adierazle batekin¹.

Hirugarrena. Modulu hori eta Foruzaingoaren batez besteko plantillan dauden polizien kopurua biderkatu –azken kopuru horretan gehieneko bat dago ezarrita: 1.100 polizia 2010-2014 aldirako–.

Laugarrena. Lortutako zenbatekoari ezarritako egozpen-adierazlea aplikatzen zaio, ehuneko 1,6koa hain zuzen.

Ondoren, Nafarroak Estatuko zama orokorretara, Hitzarmen Ekonomikoaren bitartez, 2004-2012 aldian egin duen ekarpenaren minorazioaren bilakaera erakusten dugu:

¹ Zatidura hau da: hitzartutako zergen bidez, autonomia erkidegoei lagatakoak kenduta, Estatuak ekitaldi horretan lortutako diru-bilketak zati oinarri-urtean lortutako diru-bilketak.

Urtea	Polizia-kopurua	Finantzaketarako modulu bateratua (eurotan)	Ekarpenaren minorazioa (eurotan)
2004	602	53.780	32.375.692
2005	692	61.834	42.788.880
2006	817	69.861	57.076.597
2007	900	78.112	70.300.965
2008	900	59.401	53.461.296
2009	900	42.789	38.509.673
2010	1.100	56.950	62.645.000
2011	1.075	57.887	62.228.242
2012	1.088	64.045	69.681.520

Txosten hau idazteko datan, Nafarroako Estatuko zama orokorrei egin beharreko ekarpenaren minorazioaren 2013ko kalkulua egiteko dago oraindik.

V.5. 2013ko AURREKONTU-BETETZEA

V.5.1. Aurrekontuaren likidazioa

2012ko azaroaren 22an, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2013ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa bat onetsi zuen. Horrenbestez, 2013an 2012ko aurrekontuak luzatu ziren.

Egoera hori kontuan hartuta, honakoa da "Herritarren segurtasuna" aurrekontu-programarako 2013ko ekitaldiko aurrekontu-likidazioa:

Gastuak kapituluz kapitulu

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketak (%)
1. Langile-gastuak	45.035.237	877.093	45.912.330	45.872.458	99,91	45.872.458	100
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	4.159.300	65.430	4.224.730	4.058.080	96,06	3.514.022	86,59
6. Inbertsio errealak	796.618	0	796.618	741.001	93,02	683.122	92,19
Guztira	49.991.155	942.523	50.933.678	50.671.539	99,49	50.069.602	98,81

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobrantzak (%)
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	91.000	0	91.000	94.271	104	94.271	100
Guztira	91.000	0	91.000	94.271	104	94.271	100

Hurrengoak alderdiak azpimarratuko ditugu:

- Gastuen ehuneko 91 langile-gastuak dira; ehuneko zortzi ondasun arrunt eta zerbitzuei dagokie, eta gainerako ehuneko bata, azkenik, inbertsioei.
- Orokorrean aseguru-enpresek edo partikularrek eskatuta egindako txostenengatik tasek "Herritarren segurtasuna" programan aitortutako eskubide guztiak osatzen dituzte.

Ondoren, "Herritarren segurtasuna" aurrekontu-programaren 2013ko aurrekontu-betetzearen kapituluz kapituluko azterketa erakusten dugu.

V.5.2. Langile-gastuak

2013ko langile-gastuak 45,87 milioi eurokoak dira, eta behin betiko aurreikuspenen ehuneko 99,91 bete da; kopuru horrek ekitaldiko gastu guztien ehuneko 91 egiten du. 2012arekin alderatuta, ehuneko hiru iguera izan da. Honakoa da gastu horien 2013ko xehakatzeta, eurotan:

Kontusailaren deskribapena	2012ko gastua	2013ko gastua	Aldea (%), 2013/2012
Goi karguen ordainsariak	51.352	55.303	8
Langile finkeen lansariak	29.172.510	31.416.560	8
Langileen ordainsariak	3.117.939	3.776.550	21
Gizarte Segurantza	7.986.939	7.656.992	-4
Aseguru polizetako primen ordainketak	81.434	72.390	-11
Aparteko orduak	909.900	-	-
Jaiegunean lan egitearen ordainketa	1.989.297	1.839.486	-8
Gaueko txandan lan egitearen osagarria	1.092.063	1.055.178	-3
Orokorra, guztira	44.401.436	45.872.458	3

Ikusten denez, kontusailen araberako gastuaren bilakaera ezberdina da. Goi karguen eta langile finkeen ordainsariek ehuneko hiru egin dute gora, eta ordainari pertsonalak, berriz, ehuneko 21.

Bestalde, aseguru polizetako primen ordainketek ehuneko 11 egin dute behera; jai egunetan lan egiteagatiko ordainsariek ehuneko zortzi egin dute behera eta gaueko txandetan lan egiteagatiko osagarriek ere behera egin dute, ehuneko hiru hain zuzen.

Aparteko orduak ez dute aurrekontu-zuzkidurarik 2013an; horren arrazoia da alderdi hori arautzen zuen 1/2005 Foru Dekretuko artikulua zati bat 25/2013 Foru Dekretuak utzi zuela indarrik gabe. Dekretu horrek Administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko 13/2012 Foru Legeak ezarritako ildoari jarraitzen dio; izan ere, lege horretan, besteak beste, aparteko orduak gutxitzeko neurria eta, gainera, ordu horiek atseden denborarekin konpentsatzeko betebeharra ezarri ziren.

Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago aparteko orduen kopurua azken urteetan gutxitzen joan dela, eta 2013an nabarmen jaitsi dela, hurrengo taulan erakusten den bezala:

Urtea	Aparteko orduak, guztira		Aparteko orduak, agente bakoitzeko	
	Ordu kopurua	Aldea (%), aurreko urtearen gainean	Ordu kopurua agente bakoitzeko	Aldea (%), aurreko urtearen gainean
2007	107.552	-	120	-
2008	100.897	-6	111	-8
2009	81.199	-20	81	-27
2010	75.561	-7	69	-15
2011	74.414	-2	68	-1
2012	70.484	-5	65	-4
2013	28.452	-60	26	-60

2013an, bai aparteko orduen guztizko kopurua, bai agente bakoitzeko ordu kopurua ehuneko 60 jaitsi dira 2012arekin alderatuta.

Zenbateko hori 2007koan zegoenarekin alderatuta, jaitsiera ehuneko 74koa da orduen guztizko kopuruan eta ehuneko 78koa, berriz, agente bakoitzeko ordu-kopuruan.

17 agentek osatutako lagin bat aztertu da, eta, orokorrean ordainsariak bat datoz lanpostuari dagokionarekin eta zuzen kontabilizatuta daude; halere, honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

- Lau kasutan, lanpostuak betetzeko deialdien aurkako errekurtsoak aurkeztu dira, era arrazoi desberdinak tarteko.

- Hiru kasutan, plazak maila apalagoko enpleguekin betetzen dira behin-behinekoz, araudian aurreikusi bezala, baina urtebete baino gehiago luzatzen dira, nahiz eta hori den horretarako ezarri den gehieneko epea.

- Kasu batean, agente batek behin-behinekoz betetzen du dibisioburuko lanpostu bat; araudiaren arabera, ordea, komisario batek bete beharko luke lanpostu hori. Horretarako, behin-behinekoz, inspektoreorde izendatu zen, eta gero, orduan ere behin-behinekoz, inspektore.

V.5.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak

2013ko ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak 4,06 milioi eurokoak dira, eta behin betiko aurreikuspenen ehuneko 96 bete da; kopuru horrek ekitaldiko gastu guztien ehuneko zortzi egiten du. 2012. urtearen aldean, ehuneko 29 jaitsi da. Honakoa da gastu horien 2013ko xehakatzeari, eurotan:

Artikuluaren deskribapena	2012ko gastua	2013ko gastua	Aldea (%), 2013/2012
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	4.383.392	3.126.825	-29
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	788.421	773.205	-2
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	171.150	111.553	-35
Errentamenduak eta kanonak	403.767	46.497	-88
Orokorra, guztira	5.746.730	4.058.080	-29

Bi milioi euro egiten duen lagin bat aztertu dugu; kopuru hori guztizko gastuaren ehuneko 49,5 da. Honakoak dira laginaren oinarritzko datuak, eurotan adieraziak:

Deskribapena	Lizitazio prozedura	Zenbat lizitatuak	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa kenduta)	2013ko gastua
Erregaiak eta labingarriak	Hornigailu berekiak. Esparru-akordioa: prozedura irekia, beherapen handiena eskaintzen duenaren alde	2	250.519	Beherapena: 0,02 €/litro Beherapena: 0,0012 €/litro	645.290
	Besteren hornigailuak. Esparru-akordioa: irekia, eskaintzarik onenaren alde	2	3.645.276	A Gasolioa: % 4,5eko beherapena, hornigailuko PSParen gainean 95 eta 98 gasolina, "berunrik gabea": % 2ko beherapena, hornigailuko PSParen gainean	
Datu polizialen komunikazio-zerbitzua	Kontratuei buruzko 6/2006 FLko 7. artikulua (Nafarroako administrazio publikoaren funtsezko interesen babesa)	-	-	-	478.179
Ibilgailuen eta makineriaren konponketak eta mantentzea	Esparru-akordioa: irekia, eskaintzarik onenaren alde	65	4.295.396	Askotarikoak	512.193
Segurtasun-zerbitzuak	Esparru-akordioa: eskaintako prezioa	4	116.662	105.212	173.311
Polizia-analisietarako laguntza teknikoa	NASERTICi egindako mandataua	-	-	109.338	145.907
Ekipamenduaren konponketak	Negoziatua, publizitaterik eta lehiarik gabe (6/2006 FLko 7. artikulua)	1	34.456	34.456	51.884

Egindako lanetik ondorioztatzen da ezen, oro har, espedienteak aplikatzekoak diren kontratuei buruzko legeen arabera izapidetu direla eta gastuak zuzen kontabilizatu direla. Horren harira, alderdi hauek azpimarra daitezke:

- Maiz gertatzen da esleipen-espedienteen nahiz luzapen-espedienteen izapidetzeak denbora gehiegi irauten duela, eta hilabetetan gastuak aitorzen direla horretarako kontratu formalizaturik eduki gabe. Egitate horiek justifikatzen dira "*bidegabeko aberastea*" eta kasuko zerbitzu nahiz horniduraren "*funtsezko izaera eta ezinbestekotasuna*" bezalakoak aipatuz.
- Erregai eta labingarriari dagokien gastua eta ibilgailuen nahiz makineriaren konponketari eta mantentzeari dagokiena esparru-akordioaren babesean egiten dira. Tresna horiek determinatzen dute

zein baldintzatan kontratatuko diren ondasun edo zerbitzuen etorkizuneko erosketak, epe jakin batez; hau da, ez dira ezein zenbateko finkoren arabera esleitzen.

- Bestalde, 2012ko azaroan, Kontuen Ganberak txosten bat argitaratu zuen Nafarroako Gobernuaren ibilgailu-parkearen kudeaketari buruz. Txosten horretan aztertu zen Nafarroako Gobernuaren ibilgailuetan egindako konponketen eta mantentze-lanen kudeaketa –Foruzaingoaren ibilgailuei dagoki-ena barne–. Honakoa aipatu genuen:

a) 2011n, kudeaketa kanpoko enpresa batek egiten zuen, urteko 162.840 euroko prezioan (168.490 euro 2012an), eta konponketa-lan bakoitzeko kudeaketaren batez besteko kostua 46,87 eurokoa zen; alabaina, kanpoko kontratazio horren barneko kontrol exhaustiboa zegoen.

b) Tailer bat bazegoen, bi mekanikarirekin. Foruzaingoko ibilgailuen matxura txikiez arduratzen ziren.

c) Konponketak kudeatzeko zeuden aukerak ebaluatzeko eskatzen zitzairen, eta erabakiak ekonomia eta efizientzia irizpideen arabera hartzen ziren.

Aurrekoari dagokionez, egiaztatu da jada 2012ko irailean baloratu zela komenigarri zela Nafarroako Gobernuaren ibilgailuen-flota mantentzeko eta konpontzeko lanak kudeatzeko sistema aldatzea, eta kudeaketa-lan hori modu zuzenean egiten hasi zen.

Txosten hau idazteko datan, ez dira handitu ez giza-baliabideak eta baliabide materialak; hori dela eta, 2013an 168.490 euroko aurrezkoa lortuko zuen Nafarroako Gobernuak.

Adierazitako aurrezki-zenbateko hori datozen ekitaldietan jaits liteke; izan ere, honako alderdiek gastua handitzea ekar dezakete: lan-zama nabarmen handitu izana, konponketen gaineko kontrola hobetzeko zenbait ataza ezarri nahi izatea, eta konponketak kudeatzeko sistema informatikoa hobetu behar izatea.

Erabaki hori hartu ondoren, 2013ko hasieran, ibilgailu horien konpontze-, aztertze- eta mantentze-zerbitzuak kontratatuzko esparru-akordio baterako kontratazio-espeditente bat onetsi zen. Gure lanean berrikusi da gero espeditente hori.

Espeditentea gauzatu zen, oro har, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean ezarritako arau guztiak betez. Nabarmentzekoa da proposamen ekonomiko eta teknikoak esleitzeko irizpideak nolako zehaztasunarekin sartu eta baloratu ziren. Horrek, izan ere, kontratazio-prozesuaren objektibotasuna eta gardentasuna erraztu zituen.

Foruzaingoaren ibilgailu-flotaren eta ibilgailu horiek konpontzearen batez besteko kostuaren azterketa bat egin dugu, eta honako emaitza lortu dugu:

- 2013an, Nafarroako Gobernuaren ibilgailuen parkea, erakunde horrek emandako informazioaren arabera, 755 ibilgailuk osatzen zuten; horietatik, ehuneko 42 (315) Foruzaingoari dagokio. Hona xehe-tasunak:

Ibilgailua	Kopurua	%, guztizkoaren gainean
Turismoa	158	50,2
Motozikleta	82	26,0
Furgoia/furgoneta	39	12,4
4x4 ibilgailua	30	9,5
Erdi-atoia	5	1,6
Ziklotorea	1	0,3
Guztira	315	100

Ikusten denez, ibilgailu ohikoenak turismo gisakoak dira, guztizkoaren ehuneko 50 baitira; ondoren, motozikletak datoz, ehuneko 26rekin.

- Ibilgailu horien antzinatasunak, parkean alta eman zitzaizen eguna kontuan izanda, ez du zertan bat etorri ibilgailuaren matrikulazio-datarekin, eta honakoa da (ziklomotorea eta erdi-atoiak kendu dira azterketatik, guztizkoan garrantzi gutxi baitute):

Ibilgailua	Antzinatasuna			Guztira
	<5 urte	5-10 urte	11-23 urte	
Turismoa	28	90	40	158
Motozikleta	8	18	56	82
Furgoia/furgoneta	15	13	11	39
4x4 ibilgailua	18	3	9	30
Guztira	69	124	116	309
%, guztizkoaren gainean	22	40	37	100

Ibilgailuen ehuneko 40k 5 eta 10 urte bitarteko antzinatasuna dute eta ehuneko 37k, berriz, 11 eta 23 urte bitartekoa; hala eta guztiz ere, sei ibilgailu baizik ez daude 18 urte baino gehiagorekin. Gainerako ehuneko 20ak bost urte baino gutxiago daukate.

Nabarmentzekoa da Foruzaingoaren ibilgailuen antzinatasuna, are gehiago kontuan izanda beren eginkizunak garatzeko funtsezko elementu bat direla.

- Ibilgailu horien konponketa- eta mantentze-lanen batez besteko kostua honakoa izan zen 2013an:

Ibilgailua	Ibilgailu kopurua	Zenbat ibilgailutan esku hartu zen	Esku hartutako ibilgailuen % guztizkoaren gainean	Kopurua	Ibilgailu bakoitzeko urteko batez besteko kopurua
Turismoa	158	146	92	338.041	2.315
Motozikleta	82	55	67	35.700	649
Furgoneta	39	36	92	39.633	1.101
4x4 ibilgailua	30	30	100	107.980	3.599
Guztira	309	267	86	521.354	1.953

Ibilgailuen ehuneko 86ri konponketa- edo mantentze-lanen bat egin behar izan zaio. 1.953 eurokoa izan zen ibilgailu horien konpontze- eta mantentze-lanetan eginiko batez besteko gastua. Kontuan hartu beharra dago konponketa- eta mantentze-lanen barruan kontabilizatzen dela ibilgailuen ikuskarpen teknikoetatik heldu den zenbatekoa, zeina 2013an 5.974 eurokoa baita.

V.5.4. Inbertsioetako gastuak

2013an inbertsioetan egindako gastuak 741.001 eurokoak dira, eta behin betiko aurreikuspenen ehuneko 93ko betetzea izan da; horrek ekitaldiko gastu guztien ehuneko 1,46 egiten du. 2012. urtearen aldean, ehuneko 41 jaitsi da.

Honakoak dira 2013ko inbertsio aipagarrienak eta haien gastua, eurotan adieraziak:

Inbertsioa	2013ko gastua
Polizia-ibilgailuak	268.603
Informazio polizialerako sistema	109.746
Herritarrentzako laguntza bulegoak eta egoitzak	94.971
Segurtasun elementuak	80.201
Material teknikoa	79.075
Informazio-prozesuetarako ekipamenduak	24.746

2013an esleitutako honako kontratazio-espeditenteak aztertu ditugu:

- Polizia-ibilgailuak: erositako 21 ibilgailuetatik, 14 heldu dira renting-kontratu bidez erabiltzen zirenetatik, eta gainerako zazpiak, berriz, erosi berriak dira.

- Herritarren laguntzarako bulegoetan eta egoitzetan egindako obrak: funtsean dagozkie Elizondoko polizia-etxean, Polizia Judizialaren bulegoan eta Polizia Zientifikoaren laborategian egindako inbertsioei.

- Polizia-informazioko sistema: gaur egun dagoen sistemako aplikazioen bilakaera funtzional bat da, eta sistema hori udaltzaingoen eta Justizia eta Barne Ministerioko aplikazioekin integratzearen emaitza ere bada. TRACASA da lan hori egiteaz arduratu den enpresa. 2009an, ibilbide-orri bat diseinatu zen behar diren urratsekin eta bere gastuarekin. Amaiera 2012rako aurreikusi zen.

Honakoak dira aztertutako espedienteen funtsezko datuak:

Deskribapena	Kontratu-mota	Prozedura	Eskaintzak	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Esleipenaren zenbatekoa (BEZik gabe)	2013an betetako zenbatekoa eurotan (BEZik gabe)
Renting sistemaren bidez eskuratutako polizia-ibilgailuak	Hornidura	Publizitaterik gabe negoziatua	1	93.575	93.575	93.575
Erositako polizia-ibilgailuak	Hornidura	Irekita eskaintza onenarentzat	1	164.939	151.376	151.376
Polizia-etxeetan egindako inbertsioa Elizondo	Obrak	Kreditu-erreserba eta faktura	1	-	23.342	23.711
Polizia zientifikorako laborategirako obren 2. fasea	Obrak	Kreditu-erreserba eta faktura	1	-	29.543	27.152
Informazio sistema	Hornidura	TRACASArri egindako enkargua	1	-	123.967	123.967

Egindako lanetik ondorioztatzen da ezen, oro har, espedienteak aplikatzekoak diren kontratuei buruzko legeen arabera izapidetu direla eta gastuak zuzen kontabilizatu direla. Halere, eta honako alderdiak nabarmendu behar dira:

- Ez da beti kreditu erreserba bat egiten gastua egin baino lehen, araudiak hori egin beharra dagoela aipatzen duen arren.
- Erositako ibilgailu berriak baldintza-orrietan ezarritako epea baino beranduago entregatu ziren.
- Polizia Zientifikoaren laborategiaren lehen fasea 2012an egin zen, eta 29.970 euroko gastua ekarri zuen (BEZa barne). Bigarrena 2013an egin zen, eta haren oinarria izan zen beharrezkoak ziren obra batzuk eta lehengo fasekoen obra osagarri batzuk egitea.

Hala eta guztiz ere, bai lehenengo fasea, bai bigarrena modu independentean lizitatu ziren, kreditua erreserbatuta eta behar den fakturarekin. Kontratuaren zatikatzearen arrazoia izan zen edukiko ziren aurrekontu-baliabideak zirela eta zegoen zalantza.

- Polizia-informaziorako sistema urte anitzeko proiektu baten zati bat da, eta atzeraturik dago hura ezartzeko egin zen ibilbide-orriari erreparatuz gero, zeren eta aurrekontu-baliabideek behera egin baitute.

2013ko otsailean, TRACASArri eskatu zitzaion lanak hasi zitzaizkion bitartean, lan horiek enkargatzeko espedientea izapidetu zen, zeren eta presakoa baitzen zigor arloko salaketan modulua garatzea San Fermin jaiek hasi baino lehen.

2013ko apirilean, TRACASArri enkargatu zitzaizkion lanak.

2013ko ekainean, TRACASAK faktura bat egin zuen ordura arte egindako lanengatik; enkargatutako zenbatekoaren ehuneko 73 egiten zuen faktura horrek. Kontu-hartzaitzak espedientea geratu zuen, zeren eta lanaren enkargua ebatzi aurretik egindako lanak aberaste bidegabe bat baitira.

Gero, TRACASAK aurreko faktura bikoiztu zuen: batetik lehen egindako lanak eta bestetik apirilko enkargua.

V.6. FORUZAINGOAREN JARDUERARI BURUZKO ANALISIA

Aurrez aipatu den bezala, ez dago adierazlerik Foruzaingoak egindako jarduerari dagokion kudeaketaren ekonomia, efizientzia eta eraginkortasuna neurtzeko.

Hala eta guztiz ere, jardueraren azterketa deskriptibo bat egin da 2009-2013 aldirako, kontuan izanda Foruzaingoaren jarduerari buruzko oroitidazkian jasotako adierazle nagusiak.

Hurrengo orrialdeko taulan adierazle horien bilakaera erakusten dugu. Horietatik, honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

- Aurkeztutako salaketa administratiboak 60.031 izan ziren 2013an; kopuru hori ehuneko 123 eta ehuneko 34 hazi da 2009arekin eta 2012arekin alderatuta. Bide segurtasuneko arrazoiengatik salaketak ugariagoak dira, eta guztizkoaren ehuneko 84 egiten dute aztertutako aldian.
- Bai instrukzioa egin deneko zigor arloko atestatuak bai atxilotu eta inputatuen kopuruak behera egin dute 2013an, aurreko urtekoen aldean eta 2009. urtekoen aldean.
- Kontrolatutako ibilgailuak milioi bat baino gehiago izan ziren 2013an, eta ehuneko 22 egin dute gora 2009koen aldean, nahiz eta ehuneko 26 jaitsi diren 2012koen aldean.
- 2013an, droga-atzemate nagusiek gora egin dute nabarmen marihuanaren eta speedaren kasuan, eta behera, berriz, haxixaren eta kokainaren kasuan.
- Schengen Informazio Sistemara –nazio mailako egun-jartzeen datu basea– egindako kontsultek nabarmen egin dute gora 2013an, informazio eta komunikazio sistemen ezarpenean egindako aurreapenari esker.
- Bai gutun eta paketeen kontrolak, bai josteta-jardueretan eta ikuskizun publikoetan egindakoek behera egin dute 2013an 2012koen eta 2009koen aldean.

Jardura-adierazlea	2009	2010	2011	2012	2013	Aldea (%), 2013/2009	Aldea (%), 2013/2012
Aurkeztutako salaketa administratiboak	26.912	22.122	19.098	44.809	60.031	123	34
Bide segurtasuna	21.963	17.553	13.953	40.438	56.535	157	40
Herritarren segurtasuna	3.633	3.372	4.071	3.255	2.625	-28	-19
Ingurumena	674	578	590	665	543	-19	-18
Jokoak eta ikuskizunak	642	619	484	451	328	-49	-27
Bideratutako zigor arloko atestatuak	4.068	4.562	4.937	4.567	3.990	-2	-13
Atxilotuak eta inputatuak	1.803	1.631	2.178	1.898	1.376	-24	-28
Istripuak							
Atestatuak	874	861	520	476	140	-84	-71
Prebentziora bideratutako diligentziak	2.711	2.910	3.041	2.698	2.886	6	7
Kontrolatutako ibilgailuak:	1.052.503	1.274.554	1.558.689	1.727.434	1.280.769	22	-26
Bide-segurtasuna:							
Abiadura	497.077	542.400	503.883	546.376	580.339	17	6
Garraioak	15.569	15.037	21.006	20.382	27.999	80	37
Bestelakoak	454.170	630.159	932.463	1.067.887	576.637	27	-46
Alkoholemiak	48.738	48.272	61.466	57.272	70.449	45	23
Drogak	197	325	481	492	665	238	35
Herritarren segurtasuna	36.752	38.361	39.390	35.025	24.680	-33	-30
Droga-atzemate nagusiak							
Haxixa (gramotan)	33.212	1.124	39.905	3.141	1.357	-96	-57
Kokaina (gramotan)	14.889	8.022	2.995	2.983	2.256	-85	-24
Marihuana (gramotan)	4.182	3.878	10.909	7.192	14.843	255	106
Speeda (gramotan)	2.487	25.304	898	1.676	55.001	2112	3182
Koordinazio Aginte Zentroaren komunikazioak	-	-	-	277.841	270.203	-	-3
Schengen Informazio Sistemaren egindako kontsultak (nazio mailako egun-jartzei buruzko datu basea):	104.129	117.689	147.974	832.827	1.194.078	1047	43
Hatz-marken bidezko Identifikazio Sistema Automatikoarekin egin-dako eragiketak	266	1.889	2.114	1.792	1.234	364	-31
Gutun eta paketeen kontrola	47.612	38.999	22.098	22.098	20.213	-58	-9
Aisiako jardueren eta ikuskizun publikoen kontrolak	20.227	16.448	19.439	20.794	13.982	-31	-33
Ibilitako kilometroak:	-	-	-	-	5.823.184	-	-

(*) Jarduera kontabilizatzeke sistema 2012an aldatu zen. Hori dela eta, ez dago hurrengo urteei buruzko datuak.

(**) Datu hori 2013rako baizik ez dago.

V.7. KONTUEN GANBERAK 1999an EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Kontuen Ganberaren 1999ko txostenean emandako gomendioen jarraipen bat egin dugu eta, orokorrean, guztiak bete dira edo Foruzaingoak ezartzeko fasean daude.

Ezartzeko falta den gomendioa da eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia neurtzeko egiazki balioko duten adierazleen batera bat garatzearena, bai eta antolamendu-unitateen kostuen gaineko kontrol bat egoteari buruzkoa ere.

Horri dagokionez, aurrez aipatu den bezala, Foruzaingoa bere polizia-informazioko sistema modu integralean ezartzeko fasean dago; horrek, izan ere, aukera emanen dio etorkizunean gomendio hori betetzeko.


Txosten hau auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2014ko urriaren 29an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA.- FORUZAINGOAREN ANTOLAMENDU EGITURA (2013)





Iturria: Foruzaingoaren jarduerari buruzko 2013ko oroitidazkia

2. ERANSKINA.- NAFARROAN DAUDEN POLIZIA-KIDEGOEN EGINKIZUNAK**SEGURTASUN INDAR ETA KIDEGOEN 2/1986 LEGE ORGANIKOA**

38. artikuluan polizia autonomikoen eskumenak ezartzen ditu. Kasu honetan aplikatu beharreko testua.

1. Berekiak:

a) Zaintzea bete egiten direla erkidego autonomoko organoek emandako xedapen eta agindu bereziak.

b) Autonomia erkidegoko eta haren ente instrumentaletako pertsonak, organoak, eraikinak, establezimenduak eta egoitzak zaindu eta babestea, instalazioen funtzionamendu normala eta zerbitzuen erabiltzaileen segurtasuna bermatuz.

c) Autonomia erkidegoaren antolamenduaren edo diziplinaren menpeko jardueren ikuskapena, eta ez-legezko jarduketara ororen salaketa.

d) Koakzioaren erabilera, autonomia erkidegoaren egintza edo xedapenak nahitaez betearazteko.

2. Estatuko segurtasuneko indar eta kidegoekiko lankidetzan:

a) Legeak eta Estatuaren gainerako xedapenak bete daitezela zaintzea eta funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamendua bermatzea.

b) Polizia judizialaren eginkizunetan parte hartzea, lege honetako 29.2 artikuluan ezarritako moduan.

c) Espazio publikoak zaintzea, manifestazioak babestea eta jendearen elkarretaratze handietan ordenari eustea.

Eginkizun hori betetzea, modu lehenetsian, egokituko zaie autonomia erkidegoetako polizia kidegoei, Estatuko segurtasun indar eta kidegoen esku-hartzea kendu gabe, autonomia erkidegoko agintariak eskatuta edo haien erabakiz Estatuko agintari eskudunek esku-hartze hori egokituz jotzen dutenean.

3. Estatuko Segurtasun Gorputzei eta Indarrei babesak ematen jarraituko dugu:

Gatazka pribatuak adiskidetasunez konpontzen laguntzea, horretarako laguntza eskatzen zaionean.

b) Istripu, katastrofe edo hondamendi publikoko kasuetan laguntza ematea, legeetan aurreikusitako moduan parte hartuz babes zibileko planen exekuzioan.

c) Natura eta ingurumena, baliabide hidraulikoak eta ehiza-, arrantza- eta baso-aberastasuna nahiz naturarekin lotutako beste edozein aberastasun zaintzera bideratutako xedapenen betetzea zaintzea.

11. eta 12. artikulua, Estatuko segurtasun indar eta kidegoen eginkizunak ezartzen dituztenak – Guardia Zibilari eta Polizia Nazionalari zaizkie aplikatzekoak–:

1. 1.- Segurtasun Indar eta Kidegoen eginkizuna izango da, Gobernuaren menpe, eskubide eta askatasunen egikaritzea askea babestea eta herritarren segurtasuna bermatzea.

a) Lege eta xedapen orokorren betetzea zaintzea, agintariengandik jasotako aginduak betetz, baikoitzari dagozkion eskumenen esparruan.

b) Pertsonak lagundu eta babestea eta edozein arrazoi dela-eta arrisku-egoeran dauden ondaren kontserbazioa eta zaintza segurtatzea.

c) Beharra dagoen eraikin eta instalazio publikoak zaindu eta babestea.

d) Goi pertsonalitateen babesaz eta segurtasunaz arduratzea.

e) Herritarren ordena eta segurtasuna mantentzea eta, kasua bada, haiek berrezartzea.

f) Delitu-ekintzen prebentzioa.

g) *Delituak ikertzea, ustezko errudunak aurkitu eta atxilotzeko; delitu-tresnak, efektuak eta probak segurtatzea eta haiek epaile edo epaitegi eskudunaren esku jartzea eta bidezkoak diren txosten tekniko eta perizialak egitea.*

h) *Ordena eta segurtasun publikorako interesa duten datuak hartu, jaso eta aztertzea, eta delinkuentzia prebenitzeko metodo eta teknikak aztertu, planifikatu eta betearaztea.*

i) *Babes zibileko zerbitzuekin batera lan egitea arrisku, katastrofe edo hondamendi publiko larrietako kasuetan, babes zibilari buruzko legediak ezarritako moduan.*

2. *Aurreko lerrokadan adierazitako eginkizunak eskumenen lurraldearen arabera honako banaketaren arabera beteko dira:*

a) *Polizia Kidego Nazionalari dagokio eginkizun horiek betetzea probintzia-hiriburuetan eta Gobernuak zehazten dituen udalerrri eta hiriguneetan.*

b) *Guardia Zibilak beteko ditu nazioko gainerako lurraldean eta haren lurralde-itsasoan.*

3. *Aurreko idatz-zatian ezarritakoa gorabehera, Polizia Kidego Nazionalako kideek artikuluko hone-tako 1. idatz-zatiko g) eta h) letretan aipatzen diren ikerketa-eginkizunak eta datuak koordinatzekoak bete ahalko dituzte nazioko lurralde osoan.*

Guardia Zibilak, dauzkan eskumen berekiak betetzeko, nazioko lurralde osoan egin ahalko ditu bidezkoak diren ikerketak, hala behar denean.

Beren lurralde-esparruaz kanpoko jarduketa-kasu guztietan, kidego bakoitzeko kideek horren be-ri eman beharko diete beste kidegoko kideei.

1. *Aurreko artikuluan ezarritako eginkizun komunez gainera, eskumenen honako banaketa mate-rialia ezartzen da:*

A) *Honakoak Polizia Kidego Nazionalak beteko ditu:*

a) *Nortasun agiri nazionala eta pasaporteak egitea.*

b) *Espainiarrak eta atzerriarrak nazioko lurraldean sartzearen eta lurraldetik irtetearen gaineko kontrola.*

c) *Atzeritartasunari, aterpeari eta asiloari, estradizioari, kanporatzeari, emigrazioari eta immigra-zioari buruzko legedian ezarritakoak.*

d) *Jokoaren arloko araudiaren betetzea zaindu eta ikuskatzea.*

e) *Drogarekin lotutako delituen ikerketa eta jazarpena.*

f) *Beste herrialde batzuetako poliziekin lankidetzan jardutea eta haiei laguntza ematea, legeei buruzko nazioarteko itun edo akordioetan ezarritakoaren arabera, Barne Ministerioaren goi zuzenda-ritzaren pean.*

g) *Segurtasun, zaintza eta ikerketaren arloko entitate eta zerbitzu pribatuen eta haien langileen, baliabideen eta jarduketan gaineko kontrola.*

h) *Indarreko legediak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak.*

B) *Honakoak Guardia Zibilak beteko ditu:*

a) *Armei eta lehegailuei buruzko legedi indardunetik heldutakoak.*

b) *Estatuaren zergabidearen babesa eta kontrabandoa saihestu eta jazartzera bideratutako jar-duketak.*

c) *Hiriarteko bide publikoetako trafikoaren, joan-etorrien eta garraioaren zaintza.*

d) *Lurreko komunikabideen, kostaldeen, mugen, portuen, aireportuen eta daukaten interesa dela-eta behar duten zentro eta instalazioen zaintza.*

e) *Natura eta ingurumena, baliabide hidraulikoak eta ehiza-, arrantza- eta baso-aberastasuna na-hiz naturarekin lotutako beste edozein aberastasun zaintzera bideratutako xedapenen betetzea zain-tzea.*

f) *Presoak eta atxilotuak hiri batetik bestera eramatea.*

g) *Indarreko legediak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak.*

2. Estatuko segurtasun indar eta kidegoek nahitaez elkarrekin lankidetzan jardun behar dute beren eskumenak betetzen dihardutenean.

3. Polizia Kidego Nazionalaren eta Guardia Zibilaren egoitzak bi institutueta edozeinen agintari zuzendutako agiriak jaso eta izapidetzeko bulego gisa baliatuko dira.

NAFARROAKO POLIZIEI BURUZKO 8/2007 FORU LEGEA

9. artikulua:

Nafarroako Foruzaingoak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Herritarren segurtasuna, eskubide eta askatasun publikoen erabilera baketsua eta pertsonen eta ondasunen babesa bermatzea.

b) Legeak eta Foru Komunitatearen eskumeneko arloei aplikatu beharreko gainerako xedapen orokorrak, eta, orobat, Nafarroako Foru Komunitateko organoen egintzak betetzen direla begiratzea, ikuskapenak eginez, salatuz eta nahitaez betearaziz.

c) Foru Komunitateko agintarien babesaz eta segurtasunaz arduratzea.

d) Nafarroako Foru Komunitateko erakundeen eta bere entitate instrumentalen menpe dauden pertsona, eraikin eta instalazioen babesaz eta segurtasunaz arduratzea.

e) Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenekoak diren oinarrizko zerbitzu publikoen funtzionamendu egokia bermatzea.

f) Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean zirkulazioa antolatzea, eskumenak banatzeko Estatuarekin izenpetzen diren eta unean-unean indarra duten hitzarmenekin bat, salbu eta eskumena legez udaltzaingoiari badagokio.

g) Garraioen arloan jardun eta ikuskapenak egitea, indarra duten legeetan xedatutakoarekin bat.

h) Herritarren segurtasunari eta ordenari eustea eta, bidezkoa denean, ordena bere onera ekartzeari, behar diren esku-hartzeen bitartez, eta bereziki, espazio publikoak zaintzea, manifestazioak babestu eta antolatzea eta jendearen elkarretaratze handietan ordenari eustea.

i) Ondasunak eta pertsonak babestea eta haiei laguntzea, batez ere istripua dagoenean eta larrialdietan, xedapenen eta, bidezkoa denean, babes zibileko planen arabera.

j) Trafiko istripuetan atestatuak instruitzea, f) letran ezarritako eginkizunen esparruan.

k) Delituei aurrea hartzea eta delituak galarazteko behar diren eginbideak egitea.

l) Polizia judizialaren lana, legeek adierazten dituzten kasu eta moduetan.

m) Nafarroako toki entitateetako agintariekin elkarlanean aritzea eta elkarri laguntzea, baldin eta haiek eskatzen badute, aplikatzekoak diren xedapenetan ezartzen den moduan.

n) Segurtasun Indar eta Kidegoekin elkarlanean aritzea eta elkarri laguntzea, legeek ezarritako kasuetan.

ñ) Segurtasun Indar eta Kidego guztiekin lankidetzan aritzea polizientzat interesgarria den informazioa biltzen, tratatzen eta elkarri ematen.

o) Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan aritzen diren segurtasun pribatuko enpresak ikuskatzea eta haien zerbitzu, jarduketa, baliabide eta langileak kontrolatzea, indarreko legeetan ezarritako dagoenari jarraikiz.

p) Gatazka pribatuak adiskidetasunez konpontzen laguntzea, horretarako laguntza eskatzen zaienean.

q) Legeek esleitzen dizkion gainerako eginkizunak, eta zehazki, legeek autonomia erkidegoetako segurtasun kidegoei esleitzen dizkietenak.

SEGURTASUN PUBLIKOARI BURUZKO 8/2006 FORU LEGEA

25. artikulua:

1. Hauek dira Nafarroako Foruzaingoaren eginkizunak:

a) Herritarren segurtasunerako polizia-lanak, hau da, Foru Komunitateko agintariak babestea, Foru Komunitateko erakundeen egoitzak zaintzea, manifestazioetan eta ekitaldi jendetsuetan herritarrek babestea, eta esku hartzea ordena berrezartzeko edota pertsonak, ondasunak eta herritarren segurtasuna babesteko.

b) Polizia administratiboko lanak.

c) Polizia judizialeko lanak.

d) Hiriarteko trafikoa zaindu eta antolatzea.

2. Hauek dira udaltzaingoaren eginkizunak:

a) Herritarren segurtasunerako polizia-lanak, hau da, toki korporazioetako agintariak babestea eta haien eraikin eta instalazioak zaintzea.

b) Hiriko trafikoa zaintzeko polizia-lanak, atestatuen instrukzioa barne.

c) Polizia administratiboko lanak, udal eskumenen eremuan.

d) Manifestazioetan eta ekitaldi jendetsuetan herritarrek babesten laguntzea, Tokiko Segurtasun Batzordeak zehazten duenaren arabera.

e) Polizia judizial gisa dagozkien eginkizunak, indarra duen araudiarekin bat.

f) Polizia komunitarioko lanak, herritarren bizikidetzaren eta tokiko zerbitzu publikoen eremuetan.

3. Hauek dira Foruzaingoak eta udaltzaingoek batera dituzten eginkizunak:

a) Hurbileko polizia-lanak eta herritarrei laguntza eta sorospena ematea.

b) Gatazka pribatuak adiskidetasunez konpontzeko esku hartzea, hala eskatzen bazaie.

c) Eremu publikoak zaintzea.

4. Aurreko idatz-zatian aipatutako eginkizun partekatuetan Nafarroako Foruzaingoko eta udaltzaingoetako langileak elkarrekin aritzen direnean, kasuan kasuko lankidetzaren hitzarmenean zehaztutako agintariak zuzenduko dute ekintza, edo Tokiko Segurtasun Batzordeak, halakorik baldin bada; edo, besterik ezean, esku hartzen duten kidegoetako buruek batera zehaztuko dute nork hartu behar duen zuzendaritza.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Kontuen Ganberak egindako "Foruzaingoa, 2013ko ekitaldia" behin-behineko txostena dela eta, fiskalizazio-organoak horretarako emandako alegazio-epeaz baliatuta, honako oharrak egin behar ditugu:

1.-

9. orrialdea: Komenigarria dirudi bi erregelamendu-testu gehitzea; haien edukiak gero aipatu dira, lanaren azterketa xehean. Honakoak dira:

Urriaren 17ko 15/2011 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa hein batean aldatzen duena.

2.- Apirilaren 19ko 25/2013 Foru Dekretua, Nafarroako Foruzaingoko kideek zerbitzuaren arrazoiak direla eta arropa erabili eta erosteagatik kalte-ordaina jasotzeko baldintzak, eta beste neurri batzuk, arautzen dituena.

2.-

23. orrialdea eta hurrengoak: Bai deskribapen-taula estatistikoetan, bai txostenaren testuan bertan, azterketa bateratua egiten da, batetik, polizian dauden enplegu desberdina eta, bestetik, kidego horretako buruztena: errealitate horiek estatutu juridiko desberdinak dituzte eta haien tratamendu bateratuak zenbait distortsio eragin ditzake.

Adibide gisa, 23. orrialdea aipa daiteke, non modu portzentuarean agenteak, kaboak, inspektoreordeak eta taldeburuak aipatzen diren, eta hurrena inspektoreak, komisarioak eta brigadaburuak, bereizi gabe ehu-nekoek bi aldiz jasotzen ote dituzten enplegu jakin bat eta, horretaz gainera, burutza bat daukatenak.

3.-

24. orrialdeko lehenengo lerrokada: Foruzaingoko plantilla organikoan modu efektiboan jasotako baldintzen alderaketa bat egiten da Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeko 45.5 artikuluan eskatutakoekin. Nabarmenezkoa da lege-testuak exijitzen dituen adierazle batzuk falta direla (eginkizunaren betetzea zein enplegu edo kategoriari erreserbatzen zaion, bigarren jarduerako lanpostuak, sartzeko modalitateak, geratzeko baldintzak, hornitzeko sistema). Baieztapena zuzena den arren, kontuan hartu beharko litzateke gutxienez ere bi xedapen badaudela plantillaren dokumentuari egotzitako hutsa osatzen dutenak.

Urriaren 17ko 15/2011 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa hein batean aldatzen duena. Foru dekretu horrek, 5. artikuluan, jasotzen du zein diren bigarren jarduerako lanpostuak izan ditzaketan unitateak; 6. artikuluan, berriz, aipatzen da zein diren Foruzaingoko unitateetatik irauteko baldintzak eskatzen dituzten lanpostuak daukatenak.

2.- Urriaren 17ko 112/2012 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duena. Testuak, 3. artikuluan, Foruzaingoko destinoak hornitzeko sistemaren zehaztapen jasotzen du; oro har, lehiaketaren sistema ezartzen du, eta berariaz aipatzen du zein plaza hornitu behar diren berariazko lehiaketa baten bitartez.

Foruzaingoko plantilla organikoko plazen zenbait baldintza zehazteko sistema osagarri hori erabiltzeko arrazoiak izan da halako zailtasun bat badagoela euskarri bakarrean batzeko poliziarenak bezain berariazkoak diren funtzionario-plaza batzuetarako baldintzak finkatzeko; izan ere, plaza horiek, baldintzei dagokienez, zerikusi txikia edo batere zerikusirik ez dute Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako plaza gehienekin. Bere garaian aztertu zen aukera izan zen Foruzaingoa plantilla organikoari dagokion agiria bereiz argitaratzea, beste formatu batekin; alabaina, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarekin bat, jo zen plantillari buruzko aipatutako foru dekretuak argitaratzeak nahikoa osatzen zituela legez ezarritako betekizunak.

Berariazko aipamena eskatze du, halaber, lanpostu huts gehienek sarbide-modalitatea adierazi gabe edukitzea; horren arrazoiak da Foruzaingoa lanpostu hutsak, unitate jakin bati atxikita ez dauden bitartean, Barne Zuzendaritza Nagusiaren esparru funtzionalean jarraitzen dutela, eta ez dutela atxikirik inongo sarbide-modalitaterik. Lanpostu hutsetako bakoitzera sartzeko modua polizia-unitate jakin bati atxikitzeko unean aitor-tzen da, urriaren 17ko 112/2012 Foru Dekretuaz ezarritako esparruaren barruan; izan ere, foru dekretu horren bidez hein batean aldatu zen Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoa.

4.-

24. eta 25. orrialdea: burutzak hornitzeko moduen arteko korrelazio bat ezartzen da, Foruzaingoaren Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamendua onetsi zuen uztailaren 26ko 265/2004 Foru Dekretuko 13. artikulua azterketaren bitartez. Eta horren ondorioa da "izendapen askeko sistema modu orokorrean erabiltzen dela burutzetarako izendapenak egiteko, araudian esandakoa gorabehera". Azterketa hori osatu beharko litzateke geroko lege-xedapen batekin: Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen aldaketa, 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2010 Foru Legeaz egindakoa; izan ere, azken horrek honako testua eman zion Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeko 45.3 artikuluari: "Izendapen askea soilik erabiliko da bete beharreko lanpostuak berekin unitate organiko baten burutza badakar". Xedapenak izendapen askea kendu zuen enpleguetara sartzeko modu gisa (polizia, kaboa, inspektoreordea, inspektorea, komisarioa, komisario nagusia), eta izendapen aske horren erabilera birbideratu zuen, inongo mugarik gabe, unitateko burutzetara.

Gai hau garrantzitsua da, zeren eta haren ondorioz gomendio bat egiten baita.

5.-

25. orrialdea: Burutzen eta enpleguen tratamendu bateratuak beste behin distorsio bat eragiten du 25. orrialdeko 6. lerrokadan azaldutakoan; izan ere, azken horretan ezartzen da inspektoreen behin-behineko izendapenak egiten direla araudian enplegura sartzeko jasota dagoen lehiaketa-prozedura jarraitu gabe. Aipa daiteke ezen inspektoreak behin-behineko izendatzeko prozedura, bai eta Foruzaingoko beste edozein enplegutarako izendatzeko ere, martxoaren 25ko 57/2002 Foru Dekretuko 27. artikuluan ezarritakoa dela – haren bidez, Nafarroako Foruzaingoko Lanpostuak Betetzeko Erregelamendua onetsi zen–. Bada, horren arabera, enplegu edo kategoriatan behar adina funtzionario ez dagoenean eta zerbitzuaren beharrak direla-eta halakoak behar direnean, organo eskudunak aldeztu aurretik izendatuta eta lanpostua erreserbatuta, Nafarroako Foruzaingoaren Kidegoko funtzionarioek behin-behineko goragoko hurrengo mailako enplegu bat bete ahal izanzen dute, baldin eta lanpostu hutsik badago eta kasuko igoera-prozeduran onartua izateko ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Foruzaingoko behin-behineko enplegu-izendapen guztiak (hori ez dator bat, nahitaez, aurrez aipatutako 45.3 artikuluko araututako burutzetarako izendapenekin) arau honen arabera egin dira, eta urtebeteko epearen gainditzea justifikatu da zerbitzuaren beharrezan operatiboak aipatuz.

6.-

25. orrialdea: 4. eta 7. lerrokadetan bi errealitate deskribatzen dira, zeinen arabera kontuan har baitaitezke txostenaren aldi berekoak edo geroagoak diren gertakariak:

Plantillan aurreikusitako dibisio-burutzen kopuruaren (20) eta komisario-lanpostuen kopuruaren arteko koherentzia ezari dagokionez, une hauetan enplegu horretarako plantillan zeuden hamar lanpostu hutsetarako zuzkidura egin da, eta haiek datorren astean onetsiko den enplegu eskaintza publiko partzialean sartu dira. Horrekin, plaza horien erregelamenduzko zuzkitzearen lehenengo fasea ixten da.

Gainera, ez du zertan bat etorri Foruzaingoaren egiturak enpleguekin. Esate baterako, komisario guztiak ez dute zertan dibisioburu izan; edo inspektore guztiak ez dute zertan brigadaburu izan. Foruzaingoaren egitura alda daiteke Gobernuak bere burua antolatzeko daukan gaitasunarengatik, eta dibisio edo bestelako unitateak sortu edo kendu ahaliko ditu, unean uneko beharretara egokitzeko. Komisarioek eta beste enplegu batzuk dituztenek buru-eginkizunak edo beren enpleguek berezko dituzten beste eginkizun batzuk bete ahaliko dituzte buru ez direnean.

Bigarren jardura dela-eta araupetzerik ez egoteari dagokionez, erregelamenduzko testu bat badago, zeinaren izapidetzea geratu baitzen Parlamentuan Poliziei buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamen bat izapidetzen hasi zenean, zeren eta testu horrek nabarmen ukitzen baitzuen figura hori.

7.-

33. orrialdea: Aurreko kasuan bezala, denboraren iragateak testuingurutik kanpo utzi du Tokiko Polizien Koordinazio Batzordeari dagokion V.3.2 puntuko azken lerrokada. Organoaren azken bilkura 2014ko urriaren 8an izan zen, eta Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren irailaren 23ko 181/2014 Foru Agindua-ren bitartez Tokiko Polizien eta Segurtasun Publikoaren Koordinazio Ataleko burua izendatu zen batzorde horretako idazkari.

8.-

34. eta 18. orrialdeak: Foruzaingoak bere ibilgailuetarako geokokapen-sistema bat dauka, zeina, gainera, ikustera ematen baita 112ko koordinazio-aretoan (Europako larrialdietarako zenbaki bakarra da 112a). Are gehiago, Foruzaingoak uko egin dio bere zuen zenbakiari 112aren eta larrialdien kudeaketa integralaren mesedetan. 2011ko Segurtasun Batzarrean, erabaki zen gainerako indar eta kidegoek beren geokokapeneko

seinalea bidal zezatela 112ko aretora. Halakorik, ordea, ez da gertatu. Konponbide bat da herritarrari arreta hobea emateko, zeren eta polizia kidego bat baino gehiago baitago, baina ez da ez konponbide bakarra, ez onena. Beste batzuk ere badaude; esate baterako, polizia-areto bakarra sortzea edo eginkizunak argiro banatuta egotea, koordinazio beharrak ahal diren gutxienak izan daitezten, besteak beste. Foruzaingoari buruzko fiskalizazio batean, ez du ematen oso egokia denik ondorioztatzea teknologia bera partekatu beharra dagoela, zeren eta kidego hau izan baita arlo horretan hartutako konpromisoak bete dituen, are gehiago betetzea gure erakundearen esku ez dagoen gomendio bat izaki.

9.-

41. orrialdea: Aparteko orduen azterketari buruzko atalean, eta 17 agenteri buruz egindako laginketaren esparruari dagokionez, ondorioztatzen da kasu batean, agente bat behin-behinekoz dibisioburu lanpostua betetzen ari dela, nahiz eta kargu hori komisario batek bete beharko lukeen. Horretarako, esaten da behin-behinekoz, inspektoreorde izendatu zela, eta gero, orduan ere behin-behinekoz, inspektore. Foruzaingoaren langileriari buruzko artxiboak kontsultatuta, ez da inongo kasurik aurkitu non ondoz ondo halako behin-behinekotasunak gertatu diren, subjektuak bere inspektoreorde lanpostua kasuko oposizio-lehiaketaren bitartez gainditu gabe, logikoa denez (edo, bestela, martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeak egindako berregitura-tzearen bitartez, zeren eta haren zazpigarren xedapen iragankorrean antzinako sarjentu enplegua inspektoreorde lanpostuarekin parekatzen baitzuen); izan ere, soilik martxoaren 25eko 57/2002 Foru Dekretuko 27. artikuluan eskatzen diren betekizunak, jada adierazitakoa, bete direnean egin ahal izan da behin-behineko izendapenik.

10.-

42. orrialdea. Laginaren datuak biltzen dituen laburpen-taulan, lizitazio-prozedurari buruzko zutabean, iradokitzen da NASERTICi egindako enkarguaren atalean sar litekeela sozietate publiko hori dela bere helburu sozialean aitortua duena analisiak egiteko xedea; baina, gainera, toxikologiako eta gizakien ADN auzitegi-analisiak egiteko laborategi homologatua dauka, bai Foruzaingorako, bai Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Instituturako ere. (Apirilaren 5eko 314 Foru Agindua, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariarena).

11.-

42. orrialdea: Hirugarren lerrokadan honakoa ondorioztatzen da: "Maiz gertatzen da esleipen-espeditenteen nahiz luzapen-espeditenteen izapidetzeak denbora gehiegi irauten duela, eta hilabetetan gastuak aitortzen direla horretarako kontratu formalizaturik eduki gabe. Egitate horiek justifikatzen dira "*bidegabeko aberastea*" eta kasuko zerbitzu nahiz horniduraren "*funtssezko izaera eta ezinbestekotasuna*" bezalakoak aipatuz".

Barne Zuzendaritza Nagusiaren eta Foruzaingoaren beraren 2013ko artxiboak aztertuta, ez dago jasota aldi horretan bidegabeko aberasteen inongo espeditenterik izapidetu denik. Jo dugu baieztapen hori lotuta egon daitekeela Polizia Informatikoko Sistema kontratatzeke espeditentearekin (txosteneko 45. eta 46. artikulua). Kontsulta egin zaio Informatikako eta Telekomunikazioetako Zuzendaritza Nagusiari, bera baita kontratuaren esleipen-hartzailea eta bera kudeatzen duena, eta konfirmatu da ezen, egiazki, 2013ko ekitaldian bidegabeko aberaste batengatik espeditente bat oinarritu zela, aipatutako kontratazio hori ordaintzea zela-eta, urtariletik maiatzera bitarteko hilabeteetan.

Hala eta guztiz ere, bidegabeko aberaste baten kasu bakarra denez, ez dirudi proportzionatua denik "maiz" hitza erabiltzea.

12.-

44. eta 19. orrialdeak: Gomendagarria litzateke adieraztea konponketen, mantentze-lanen eta IITaren batez besteko gastuari dagokion 1953 euroko zenbatekoak bai mantentze zuzentzailearen kontzeptuak –matxura edo kolpeen ondoriozkoa– bai prebentziozko mantenimendua –esate baterako, birpintaketak, errotilazioak, gurpil-aldaketak eta abarrekoak–.

Halaber, beste gastu batzuk ere jasotzen ditu, zeinak zorrozki ez baitagozkio ibilgailuari, baizik eta ekipamenduei (sirenak, lehentasun-adierazleak...) eta haien aurre-instalazioei (irradi-ekipoak, kargagailuak, inhi-bitzaileak...).

Iruñean, 2014ko urriaren 23an

Barneko zuzendari nagusia: Francisco José Fernández Elizalde

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuko Lehendakari, Justizia eta Barneko kontseilariak aurkeztutako alegazioak aztertuta, ohar horiek txostenari buruzko azalpentzat hartu ditugu, ez baitute haren edukia aldatzen. Txostenari erantsi zaizkio eta txostena behin betikotzat jo dugu. Hala eta guztiz ere, honako xehetasunak egin nahi ditugu:

- 2. puntuari dagokionez: ez zaie tratamendu bateraturik ematen ari enplegu eta burutzei; izan ere, Foruzaingorako diseinatu, onetsi eta argitaratu den plantillaren analisi eta deskribapen bat egiten ari gara.
- 4. puntuari _ dagokionez: txostenean azaltzen den bezala, 265/2004 Foru Dekretuak, Foruzaingoarean antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituena, 13. artikuluan ezartzen du burutzak batzuk (polizialaguntzako bulegoetakoak, brigadetakoak eta taldeetakoak) berariazko lehiaketaren bitartez beteko direla, salbu eta plantilla organikoak, aparteko izaeraz eta burutzaren berariazko ezaugarriei erreparatuta, aurreikusiten duenean haiek izendapen askeko sistemaren bitartez betetzea.

Egiaztatu da izendapen askearen sistema modu orokorrean erabili dela burutza horietarako, plantillan kontrakoa ezarri gabe.

Bai aintzat hartu da Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzea; izan ere, lege horrek, destinoak hornitzeari dagokionez, ezartzen du izendapen askea erabiliko dela soilik unitate organikoetako burutza dakarten lanpostuak betetzeko. Baieztapen horrek ez dakar berarekin sistema hori baizik ezin denik erabili burutzak betetzeko, baizik eta lanpostu horietarako baizik ezin dela erabili.

Aurrekoa dela eta, gure txostenean horri buruz azalduetakoa berresten dugu.

- 5. puntuaren kasuan: 57/2012 Foru Dekretuak, Foruzaingoko lanpostuen hornikuntza arautzen duenak, ezartzen du behin-behineko izendapenak gehienez ere urtebeterako eginen direla, eta epe hori soilik luzatu ahalko dela baldin eta kasuko enplegurako igoserarako deialdia egin bada, eta, betiere, lanpostu huts hori behin betiko moduan betetzen den bitartean.

Egiaztatu da inspektoreak izendatzeko behin-behineko izendapenak, aztertu ditugunak, urtebete baino askoz ere epe luzeago baterako egin direla, eta ez dela araudian aurreikusitako deialdirako deia egin epe hori luzatzeko; hori dela eta, txostenean horri buruz esandakoei eusten diegu.

- 9. artikulua azterketa aurrez azalduetakoaren antzekoa da. Dibisioburuaren lanpostua betetzen ari diren inspektoreordeen bost kasuetatik –izan ere, komisario batek bete beharko lituzke lanpostu horiek–, laginean jasotako kasua urtebete baino gehiago egiten duen behin-behineko izendapen bati dagokio, horretarako behar den deialdia onetsi gabe luzatutakoa; hori dela eta, gure txostenean esandakoa berresten dugu.
- 11. puntuari dagokionez, ondasun arrunt eta zerbitzuetan egindako gastuei buruz aztertu dugun laginean, egiaztatu da aztertutako kontusailen ehuneko 50aren izapidetzea (eta ez soilik kasu batean, aipatu den bezala), denboran luzatu dela, eta horrek berarekin ekarri duela gastuak aitortzea kontratu formalizatu bat eduki gabe.
- 6. eta 7. puntuei dagokienez, Ganbera honek ez ditu egitate horiek aztertu, txosten hau egiten gertatu den atzerapena dela eta. Horren arrazoia da Ganbera honek azterlan konparatibo bat egin nahi izan duela beste polizia autonomiko batzuekin. Alabaina, azkenean ezin izan da halakorik egin, datu kontrastaturik ez dagoelako.

Eskerrak eman nahi ditugu lankidetzarengatik eta egindako oharren edukiarengatik.

Iruñean, 2014ko urriaren 29an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

